

Goienkaria

2010eko ekainaren 25a > Egubakoitza > X. urtea > 427. zenbakia > Doan banatzekoa



www.goiena.net

TOKIKOM

"Kapitalak gura du langileok ordaintzea faktura, eta ez dugu onartuko"

Adolfo Muñoz
ELAko idazkari nagusia > 08



G2a

Gaur, Ramon Arantzabalen 'performance'-a > 31

OÑATI
Promozio bereziak egingo dituzte udako turismo kanpainan > 20

ARETXABALETA
Lausittako etxe txikietako lanak hasteke daude, grebagatik > 22

KIROLA
Iban Velasco arrasatearrak debuta egingo du Frantziako Tourrean > 29

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32-34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

JENDARTEA > TABAKOAREN LEGEA

Tabernariak haserre tabakoaren aurkako lege berria dela-eta

KEXU "Nahikoa daukat bezeroei zerbitzatzearekin; ezin naiz hasi polizia lanak egiten"

ISUNA Jaurlaritzak 3.000 euro arteko isuna ipini nahi die erretzen uzten duten tabernariei > 04

JENDARTEA > JAIK

Jai nagusiak Arrasaten, Eskoriatzan eta Elgetan

Bailaran jai-zirkuitua egiteko moduan gaude. Arrasaten sanjuanak ospatzen dihardute; astelehenean sanpedroak hasiko dira Eskoriatzan; eta egubakoitzean Ferixa Nagusiko jaiak Elgetan. > 34

Egoitza modernoa erretiratuendako



Etxaluze izena ipini diote Arrasateko San Andres auzoan erretiratuendako egin duten eraikinari. Atzo, eguna, inauguratu zuten, baina uztailean hasiko dira erretiratuak erabiltzen. Singularra da, geotermia erabiltzen duena; hau da, lurpeko temperatura aprobetxatzen du eraikina hoztu edo berotzeko. > 14

EKITALDIA Egoitzaren sarreran aureskua egin zuen dantzari bikoteak udal agintarien, erretiratuen elkarteetako ordezkarien eta hainbat herritarren aurrean.

ARANTZAZU EZKIBEL

JENDARTEA > ORTU-JABEAK

Lehengo eta gaurko baratzezaintza, biak loraldian

BI MOTA Belaunaldiz belaunaldi landutako baratzeek bizirik jarraitzen dute Debagoieneran; bestalde, ortu berriak sortu dira

ELKARTEA Arrakasta handia izan dute Arrasateko Udalak sortutako ortu ekologikoek; elkarteak sortuko dute herritarrek ortuok kudeatzeko

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Laborantzak goraldia bizi du Debagoieneran, eta ez da soilik erretiratuen zaletasuna edo antzinako tradizioa; adin eta mota guztietako jendea hasi da bere ortua lantzen.

Neurri handi baten, udal batzuen inizatibari esker hasi da berpizkunde hori. Eskoriatzako Udalak 2004. urteaz geroztik uzten ditu bereak diren ortu batzuk erretiratuek landu ditzaten; eta, iaz geroztik, Arrasateko Udalak errentan ematen ditu Garagartzan dauzkan hainbat ortu, modu ekologikoan laboratzeko. Zozketa iaz egin zuten, eta harrituta

Eskoriatzako Udalak 2004a ezkeroruzten dizkie ortuak erretiratuei

Betiko ortu-jabeak ere nekazaritza ekologikoa egiten saiatzen dira

geratu ziren arduradunak zenbat jendek eman zuen izena: 158k, horietatik 30 emakumezkoak, eta 20 eta 30 urte arteko 10 emakume, horien artean. Gaur egun, 74 lagun dabilta nor bere ortuaz arduratzen. 87 ortu daude.

Arrasateko Udalak ortu horien gaineko araua egin zutenean, erabaki zuen erabiltzaileek Udalarekin elkarte osatu beharko zutela, erabiltzaileek eurek kudeatu zitzaten ortuok. Bada, egunotan dabilta elkarte hori sortzen. "Udalaren erabakia izan zen kudeaketa erabiltzaileen esku uztea: barneko funtzio-namendua eta eguneko gastuak", azaltzen du Arrasateko Ingurumen teknikari Rafa Ugartek. Erabiltzaileek aldi baterako -20 urterako- errentan hartuta dituzte lur-eremuok. Hiru hilabeteko kuota gisa 54 euro ordaintzen dute, eta 200 euroko fidantza.

Bestalde, erabiltzaileak behartuta daude nekazaritza ekologikoa egitera, Europako Bataunak dituen arauak beteaz.

Jabe berriek hezkuntza bat ere jaso dute, Udalak emandakoa. Hala ere, egunean egunekoa da ikasteko modu onena, Edurne Baltzategi erabiltzaileak dioskun moduan: "Hemen gabiltzanon ehunetik 90ek ikasten gabiltza zer landatu. Egunetik egunera ikasten dugu". Baltzategi irakaslea da, eta ikasleekin batera landu zituen nekazaritzako hainbat kontu: "Handik dakit, adibidez, uztailean porrua landu daitekeela; uda-koak direla piperra eta leka... eta maiatzerako, tomateak". Egunotan zebilen tomateekin lanean Edurne Baltzategi, eta eguraldi ona aprobetxatuta pozik zebilen bere lursailtxoan, bera eta beste arrasatear batzuk.

Baltzategik dioenez, baratzean ibiltzea eta taldean "sortu den girotxoa" du gustuko. Hala, denondako instalazio berberak dituzte -txabola orokor bat, biltegi bakarrarekin, eta aldage-



Javier Oiartzabal.

LEIRE KORTABARRIA

JABEGO PRIBATUKO ORTUAK

Bolura bidean dauka bertua Javier Oiartzabalek; 3.000 metro koadroko lursail ederra, aitagarrenbarena zena. Baratze hori lantzen eta egokitzen 20 urte badaramatza Javierrek; batez ere, erretiroa hartu zuenetik ibiltzen da han.

Gustuko du lan hori, baina faltan sumatzen du Bergaran ortuak dituztenendako laguntza eta baliabide gehiago.

lak-, eta gauza asko elkarrekin banatzen dituzte; bada, horretaz ere gozatu egiten dute.

Bestalde, Arrasateko Udalak "asko laguntzen" diela esaten du: ikastaroak, aholkuak eta abar.

Eskoriatzako Udalak 2004a ezkeror dihardu Torrebasoko ortu batzuk herriko erretiratuei aldi baterako uzten. "Nekazaritza tradizionala" egitea da baldintzeta-ko bat. Aurten, abenduaren 31ra arte, 28 herritarrek dute ortua han; 29 partzela dira.

EZ DAUDE ZENBATUTA

Debagoieneratik kanpo ere egiten den praktika bat da hori; Gasteizen, adibidez. Oraingo, bailarako bi herri horietan egiten da. Helburuen artean daude nekazaritza tradizionala edo ekologikoa bultzatzea eta herritarrei denbora-pasa aberasgarri bat ematea; baina beste helburu bat izan ohi da legez kanpo dauden ortuen gainean zerbaite egitea.

Arautu bako zenbat baratze dagoen jakitea oso zaila da; Arra-

sateko Udalak 2005ean egin zuen herriko ortuen inbentario bat, eta egoera irregularrean zeuden hainbat antzeman zituen, batez ere Santa Teresan, Makatzenan, Urribarrin eta Garagartzan; hain zuzen, ortu batzuk Udalaren lurretan eginda zeuden. Hala ere, ortuak baino gehiago, ortuetan jabe batzuek egiten dituzten txabolak ziren arazoa.

Inbentario hori ortu ekologikoen proiektuaren lehenengo pau-

DATUA

74

ERABILTZAILE

Garagartzan 87 ortu ekologiko egin ditu Udalak, 50 eta 70 m² artekoak, eta gaur egun 74 herritarrek dute bana errentan hartuta. 20 urterako daukate alokairuan.

DATUA

5

URTE

Orain dela bost urte egin zuen Arrasateko Udalak herriko baratzeen inbentarioa. Orduz geroztik, ez da besterik egin, eta Debagoien osoan ere huraxe da dagoen inbentario eguneratuen.

m (+)
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

professional
learning space



HEZKUNTZA MASTERRAK

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa.



Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztasunetan Masterra (EKOMU).



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko Unibertsitate Masterra.



Berrikuntza Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan Masterra.

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Dorleta z/g, 20540 Eskoriatza / Tel. 943 71 41 57

www.mondragon.edu/muplus/hezkuntza



UDALEK BULTZATUTAKO ORTUAK

Garagartzan ortu
Gekologikoak egin
zituen Arrasateko Udalak,
eta iaz zozketa bidez
esleitu zituen. Hantxe
zebiltzan joan den asteko
arratsalde baten argazki-
ko lagunak. Eurek diote
"giro polita" sortu dela
taldean; besteak beste,
instalazioak eta lanabe-
sak konpartitu egin behar
dituztelako. Hoge
urterako dute errentan
hartuta ortua.

Garagartzako ortuetan ibiltzen diren arrasatear batzuk, martitzen arratsaldean.

JOKIN BEREZIARTUA

soa izan zen. Garagartzan zeuden baratzeen jabeek aukera eman zitzaizen baratze haiek uzteko, eta berriak loteka banatu zituztenez, lehenengo loteko zozketan bakarrik jabe haiek sartzen ziren.

Eskoriatzako Udalak ere helburu bera –ortu ilegalen arazoa konpontzea; "kopurua murriztea edo, behintzat, euren egoera hobetzea", ortu-partzelak adjudikatzeko baldintzen pleguan esaten denez– zuen Torrebasoko lur-eremuak uzten hasi zenean.

ARAU ZORROTZAK TXABOLENDAKO

Debagoieneko beste herrietan ez dago Arrasateko edo Eskoriatzako antzeko sistemarik. Ez dago ere ortuen inbentario eguneraturik, ez eta ortuen gaineko udal ordenantzarik ere. Udalek duten arau bakarra, Egitamu Orokorrak batzen duena, txabolei dagokie, eta hor bai, baldintzak zorrotzak dira: udal bakoitzak zehazten du lursailaren gutxienezko hedadura, etxolaren beraren neurriak –esate baterako, Antzuolako Udalak debekatu egiten du 3 metro baino garaiagoa izatea, eta 8 m2 baino gehiago hartzea– eta bestelako ezaugarriak –adibidez, Eskoriatzako Udalak etxolan bi abere edukitzeko baimena ematen du; beste udal batzuek, ez– eta zertarako erabil daitekeen ere zehazten dute –bakar-bakarrik orturako lanabesak gorde daitezke han, eta ezingo da txoko edo atsedenerako leku gisa egokitu. Etxola ze materialekin egin daitekeen ere mugatzen dute udal arauak, teilatua zelakoa izan

behar duten, eta beste hainbat zehaztapen. Horrez gain, inork txabola egin nahi badu, aurrez dagokion udalari baimena eskatu beharko dio.

Bada, baldintza horiek guztiak badaude ere, udal bateko baino gehiagoko arduradunek onartzen dute askotan arazoak daudela txabolekin. Hala, batez ere aspaldi egindako txabolak baldin badira, gerta daiteke Udalen edo Foru Aldundiaren babes bereziko lurretan egotea. Edozelan ere, momentuz ez da horren gainean ezer egin. Normalean, norbanakoren batek salaketa ipintzen badu bakarrik ekiten diote udalek. Horiek salbu, eta txabolon egoera kontuan hartuta ere, "aparteko arazorik ez" dela egoten esaten dute, oro har, udaletako arduradunek.

BETIKO BARATZE-JABEAK

Betidanik Debagoieneko landa eremuetan ezagutu izan ditugun baratzeek ere hor jarraitzen dute.

Horiek bai, gehienetan erretiratuek zaintzen dituzte, zaletasunak bultzatuta. Javier Oiartzabal bergararrak Bolura bidean dauka bere lur-eremua, eta hantxe ibili da joan diren egunotan, berakatz uztatxo batzen. Lur-eremu ederra dauka: 3.000 m2, eta denetik landatzen du: "Orain porrua, letxuga, patatak, azenarioa... dauzkat. Gero aldatu egingo ditut porruak, eta leka landatuko dut. Letxuga urte osoan landa daiteke", esan zigun. Barazkiez gain, frutak eta loreak ere lantzen ditu, eta bi etxola dauzka. Artean, lursail edor horretan gehiagorako lekua dauka, eta bi konpostagailu ipini ditu.

Oiartzabal lehengo eskolako ortu-jabea da: aitagarrebarena zen ortua da hori, eta emazteak animatuta erabaki zuen hari jarraitzea. Eta gogoz jarraitu ere: "Badaramat 20 urte baratzea zaintzen, baina erretiroa hartu nuenetik gehiago ibiltzen naiz, jakina", esaten digu. Hala ere, onartzen digu seme-alabek ez dutela "gogo handirik" jarraitzeko.

Lehengo usadioak jarraitu arren, beste ortu-jabe askok bezala, Javierrek oraingo joerak ere bere egin ditu: "Nekazaritza ekologikoa egiten dut ahal dudan neurrian. Dena dela, baratzeak abonua ere behar du, eta pixka bat ere bota egin behar zaio".

Faltan igartzen du bergarar horrek "laguntza handiagoa": "Arrasaten berbaldiak, ikastaroak... ematen dituzte; Bergarara gutxi etortzen dira, ez daukagu laguntzarik", esaten digu.

#Gipuzkoa



Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Enpresei laguntzea

Gipuzkoan badugu Plana:

Estualditik ateratzeko, berregituratzeko eta proiektu lehiakorrek sustatzeko neurriak bideratzea.

 **GIPUZKOA**
zurekin, aurrera >

JENDARTEA > TABAKOAREN LEGE BERRIA

"Tabernariak ez lukete 3.000 euroko isuna ordaindu beharko"

Jaurlaritzak hilabete barru nahi du tabakoaren aurkako legea onartzea; aurreikusitako neurrien artean, erretzen uzteagatik isuna jartzea dago

MIRIAN BITERI > BERGARA

"Oso gaizki ikusten dugu 3.000 euroko isuna ordaindu behar izatea tabernan bezeroak erretzeagatik. Ez da normala nik pertsona bati esan behar izatea ezin duela erre. Gure betebeharra izan daiteke erre ezin daitekeela esaten duen kartela jartzea edo hautsontziak erretiratzea, baina ez bezeroari hori esatea. Gu ez gaude horretarako; erakundeek kontrolatu behar dute hori, Ertzaintzarekin edo Udaltzaingoarekin". Gipuzkoako ostalaritza elkarteak zuzendaritzako kide eta Oñatiko Antton tabernako Antton Elortza-ren hitzak dira horiek.

Jaurlaritzak asteon jakinarazi du 3.000 euro arteko isunekin zigortuko dituela bezeroei erretzen uzten dieten tabernak,

ESANAK

"Gu ez gaude horretarako; erakundeek kontrolatu behar dute hori, Ertzaintzarekin edo Udaltzaingoarekin"

Antton Elortza > Tabernaria

tabakoaren aurka gertatzen ari diren lege berria indarrean sartzenean.

Jaurlaritzak eta Espainiako Kongresuak lantzen diharduten tabakoaren aurkako legearen aldaketa "paraleloan" doala dio. Espainiako Gobernuak oinarritutako legea egingo du eta Jaurlaritzari dagokio hori betearazteko

ESANAK

"Errege bezperan nik nahikoa daukat bezeroei zerbitzatzearekin; ezin naiz hasi polizia lanak egiten"

Jose Mari Gartzia > Tabernaria

neurriak zehaztea. Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak hilabete barru du egitasmoa onartzeko asmoa, eta jarraian, Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko dute.

"BELDURREZKO" LEGEA

Elortza-ren arabera, lege horrekin "motz" geratu dira: "Ulertzen dut tabakoa txarra dela eta kendu egin

ESANAK

"Lege berria onartzen dutenean ikusi beharko da nola geratzen den eta jendeak nola hartzen duen"

Jon Kepa Zubillaga > Tabernaria

behar dela. Baina leku guztietan kendu behar da, ez bakarrik tabernetan, baita pilotalekuetan, erakunde publikoetako toki itxietan eta elkarte gastronomikoetan ere. Hori dela-eta, legea motz geratu da, beldurrezko legea deitzen diot nik. Beldurrez ari dira legea gertatzen". Elortzak gaineratu du Gipuzkoako ostalaritza elkarteak alegazioak aurkeztu dizkiola egitasmoari.

Bergarako Irish Pubeko Jose Mari Gartzia bat dator Elortzarekin. Polizia lanak egiten ezin dela egon dio: "Errege bezperan, esaterako, nik nahikoa daukat bezeroei zerbitzatzearekin. Ezin naiz hasi polizia lanak egiten". Uste du lege berria kaltegarria izango dela tabernariendako: "Udan jendeak eskatzen du eta kanpora doa; baina neguan ezin da horrelakorik egin. Hori dela-eta, salmentek behera egingo dute".

Aretxabaletako Gurea tabernako Jon Kepa Zubillagaren ustez ere, tabernariak ezin dira ibili polizien moduan. "Irteten denari ez diot kasu handirik egiten. Dene-tarik entzuten da. Lege berria onartzen dutenean ikusi egin beharko da nola geratzen den eta jendeak nola hartzen duen".

HEZKUNTZA > PROTESTA

Donostiako biharko martxarekin bat egin dute bailaran

'Hezkuntza ireki, parte-hartzaile eta euskaldunaren alde' Bulebarretik 18:00etan irtengo den manifestaziora joateko deitu dute

M.B. > BERGARA

Hezkuntzan euskara eta euskal kultura jasaten ari diren "erasoaldiaren" aurrean manifestazio nazionala dago bihar, Donostian. Hezkuntza eta kultura arloetako 100 ordezkari inguruk deitu dute hori. Debagoiengan, horri bultzada emate aldera agerraldia egin zuten martitzenean hezkuntzako ikasle, irakasle, guraso eta herritar talde batek, Bergarako kultura etxean.

Haien izenean Ibai Redondok *Euskal Herriak behar duen hez-*

kuntzaren alde lelopean egindako agiria irakurri zuen. Nabarmendu zuen hezkuntza "ireki, parte-hartzaile, euskaldun eta pluralistaren alde" egin dute ibilbideari modu "kezkgarrian" eragiten dioten erabakiak hartzen ari direla erakundeak. Horren harira, salatu zuen esandako erabakiak "inposizioaren bidetik" datozela, eragileen parte hartzean sakondu eta adostasuna bilatzen saiatu gabe.

Redondok irakurritako agiriaren arabera, "edukiei dago-



Deitzaileak martitzenean Bergarako kultura etxeko parkean.

MIRIAN BITERI

kienez, euskararen presentzia lausotu nahi da beste hizkuntzen ikaskuntzaren aitzakia erabilita". Bestalde, irizpide ideologiko jakin batzuk ezarri nahi direla ere salatu zuen, eta, adibide moduan, Euskal Herriaren kontzeptua bera arlo jakin bate-

ra baztertu nahi izatea, eta biktimen gaia modu murritzatu eta alderdikoian erabiltzea.

18:00ETAN BULEBARRETIK

Horren aurrean, eragile sozial, sindikal, kultural eta herritar guztiak animatu nahi izan zituen

hezkuntza alorrean gertatzen ari denaren gainean hausnartzera, eta erantzun egokia ematera. Bide horretatik, bihar 18:00etan Donostiako Bulebarretik irtengo den manifestazioan parte hartzera deitu zuen Redondok jendartea.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

943 71 80 09
www.mondragon.edu/prest

Etorkizun handiko gradu bat ikasteko prest?

**ENPRESEN ADMINISTRAZIOA
ETA ZUZENDARITZAN GRADUA**

ATE IREKIAK

EKAINAK 28 astelehena, 18:00.
ENPRESAGINTZA FAKULTATEA. OÑATI.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
X. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com

2010



Estepan Plazaola, batzar orokorraren aurretik, Kultureteko areto nagusian. A.E.

Estepan Plazaola > Goienako presidentea

"Bazkide klubak herritarren ekarpena eta parte-hartzea indartzeko balio izan digu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Goienak martitzenean egin zuen urteko batzar orokorra. Kudeaketa plana eta diru kontuak aurkeztu zituzten batzarkideen aurrean. Baina beste gai batzuk ere aztertu zituzten; adibidez, Goienaren 10. urteurrena. Aurten bete ditu Goienak 10 urte eta horren harira egingo dituzten ospakizunen berri eman digu Estepan Plazaola Goienako presidentea.

Goienak 10 urte bete ditu aurten, eta, horren harira, produktuetan diseinu aldaketa egingo duzue aurten.

Hala da. Goienak 10 urte bete ditu aurten, eta hori mugarri bat da. Alde batetik, orain arte egindakoa errepasatu, eta gurekin izan direnei eskerrak eman behar dizkiegu.

Bestalde, aprobetxatu gura dugu 10. urteurrena aldaketa batzuk egiteko. Gure produktuetan diseinu edo forma aldetik moldaketak egingo ditugu aurten. Edukietan ere, batez ere Interneten, edukiak sailkatu egingo ditugu.

Gainera, udazken alderako hainbat ekitaldi antolatu dituzue.

Urteurrenaren harira, udazken aldera hainbat ekitaldi egingo ditugu; batez ere, urte haue-tan gurekin lagun izan direnak eskertzeko egindako ekitaldiak izango dira. Bestalde, orain arteko irudia berritu eta indartzea izango da helburua.

Eta Goienaren beste erronketako bat da egoitza bateratua izatea?

Bai; zenbait aukera aztertu ditugu eta momentu honetan indar handien duena da Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezkoen Fakultatearekin batera ilusioz betetako proiektu bat elkarrekin martxan jartzea. Arlo ekonomikoa aztertu behar dugu, baina guk uste dugu ilusioz betetako proiektua dela eta espero dugu hemendik gutxira erabakia izatea gai horren inguruan.

2009-2010 ikasturtean Goiena Kluba jarri duzue martxan. Zelako harrera izan du klubak herritarren artean?

Bazkideen kluba da herritarren ekarpena eta parte-hartzea indartzeko erabili dugun bideetako bat. Aurten jarri dugu martxan eta oso gustura gaude orain arte izandako emaitzekin. Uda-ra guztian kluba indartzen jarraituko dugu beste bultzada bat emateko klubari.

"Goienak 10 urte bete ditu; gurekin izan direnei eskerrak eman behar dizkiegu"

"Urtemuga aprobetxatu gura dugu gure produktuetan diseinu moldaketak egiteko"

"Dagoeneko digitalizazioa bukatu dugu bailaran eta balorazioa positiboa da"

Gure helburua da orain arte Goienako bazkidedun izan direnak edo Goienarekin lotura daukaten herritar multzo handi hori nolabait Goienako bazkide eta lotura sendoagoko kide izatera pasatzea. Alde batetik, proiektuak indartzeko balioa du, eta baita herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko ere.

Goienak aurten izan duen beste erronketako bat telebistaren digitalizazio prozesua izan da. Nola garatu da?

Apustu garrantzitsua izan da digitalizazioarena. Hamar urte hauetan telebista jardunean egon da, baina modu alegalean. Hemendik aurrera telebista lizentzia legezkoa izango dugu 15 bat urterako.

Dagoeneko digitalizazioa bukatu dugu bailaran; bai bere mugape ofizialetan, eta baita barrutitik kanpo ere. Bailara guztira hedatu da dagoeneko seinale digitala.

Balorazio positiboa egiten duzue?

Seinalearen kalitatean asko hobetu da eta pentsatzen dugu horrek ere asko lagunduko digula. Alde horretatik, nik uste dut oso balorazio positiboa egiten dugula eta herritarrek ere gustura hartu dutela.

Beste ezer gehitu gura duzu, Estepan?

Lehen esan bezala, urte haue-tan jende askoren laguntza eta eskuzabaltasuna jaso dugu. Urte hauek bete ditugu eurei esker eta horregatik eskertu egin gura diegu eman diguten laguntza.

etxeko leihotik



Monika Belastegi > 'mbelastegi@goiena.com'

Haurren oporrak, gurasoen buruhauste

Aste honetan bukatu dute ikasturtea ikasle gehienek. Oporretan daude, dagoeneko. Gogoan dut neuk ere eskolako azken eguna nola hartzen genuen umetan. Urduri egoten ginen. Gela txukundu, andereñoari pa eman, amantalak jaso eta lagunekin jolasteko, igerilekura joateko... bi hilabete aurretik. Hura poza! Irailetik ekainera bitartean arau eta ordutegi zorrotza jarraitu ostean, ondo merezitako oporrak.

Bada, opor garaia buruhauste bihurtzen da guraso askorendako. Izan ere, areagotu egiten dira haurrak zaintzeko dituzten zailtasunak. Etxetik kanpo lan egiten duten gurasoek haurren egoera berrira egokitu behar izaten dute eta askotan ez da erraza izaten, batik bat haur txikiak dituzten gurasoen kasuan. Eskerrak aitona-amonei.

Gaur egungo gizartean lanari begira bizi gara. Lanak baldintzatzen du, kasu askotan, gure bizilekua eta asko, familia bizitza; ez da samurra biak uztartzea.

Askotan entzuten den esaldia da, gaur egungo haurrek ez dutela lehengoek zuten heziketa bera. Baina ezta gizarte ere du bera ere. Heziketa egokirako denbora eta pazientzia dira errezetarik onenak eta hori, zoritxarrez, ez dago soberan gaur egun. Hori bai, gogoia, ilusioa eta maitasuna, gaur egungo gurasoek lehengoek beste.

> Jose Luis Elkorori elkartasuna adierazi eta haren askatasuna eskatzen dutenak gero eta gehiago dira. Asteon bat egin du harekin Bergarako Lokatza ziklismo taldeak. Uztailaren 2rako bizikleta martxa antolatu dute.

> Seminarioa eta Arrizuriaga eraikinen arteko trukearen alde azaldu dira Batzar Nagusiak. Bergarako Udalaren nahia euren egin eta Aldundiari eskatuko diote trukearen aldeko erabakia irail aurretik hartzeko. Hala izango dote da?

> INDUSTRIA
Mankomunitateak lehiakortasuna hobetzeko jarduerak antolatu ditu ekainaren 28rako

Mankomunitateak enpresei zuzendutako Compite-Iniciativas laguntza programa aurkezteko jardunaldia antolatu du ekainaren 28rako. Spri-k euskal enpresen esku jarritako tresna da programa, lehiakortasuna hobetzeko jarduerak garatzeko. Jardunaldia astelehenean 10:00etan izango da. Izena emateko deitu 943 79 30 90 telefonora edo idatzi enpresa@debagoiena.net helbidera.

> SINDIKATUAK
LABeko ordezkariak batzarra egin zuten greba eguna nola antolatu aztertu eta arrakasta izateko

Hilaren 29rako deituta dagoen greba orokorraren harira, Kulturaten egin zuen batzarra martitzenean LAB sindikatuak. Debagoieneko hainbat ordezkariak parte hartu zuten deialdian. Greba egiteko arrazoiak eztabaidatu eta egun horretan nola antolatu aztergai izan zuten, deialdiak arrakasta izan dezan. Behin batzarra amaituta, agerraldia egin zuten Seber Altube plazan; langileei eta herritarrei deialdiarekin bat egiteko dei egin diete.



zabalik

Eneida Iturbe

Treneko gogoetak

Egunero hartzen dut trena lanera joateko eta etxera bueltatzeko. Nekearen arabera, lo-kuluxka bat egiteko edo irakurtzeko aprobetxatzen dut bidaia.

Askotan, baina, ez da erraza izaten lokartzea ezta liburuan kontzentratzea ere, ingurukoen jarduna dela eta. Solasaldi batzuek grazia egiten didate, batek edo bestek zer pentsatua ematen didate eta zenbaitek nire onetik ateratzen naute.

Duela gutxi liburutik burua altxarazi zidan elkarrizketa batean emakume aberatsen gaineko telebista-programa bati buruz zebiltzan berbetan eta gogotsu defendatu zein kritikatzten zituzten protagonistak. Krisi garaian, aberatsek dirua zela xahutzen duten erakusten diguten programek arrakasta izatea benetan kezka-garria iruditzen zait.

Badirudi, gainera, muturrak atsegin ditugula: talde marjinalak edo diruarekin zer egin ez dakiten aberatsak. *Callejeros*-etik *Mujeres ricas*-era egin dugu salto. Batzuen desgraziekin eta besteen itxurakeriekin betetzen ditugu iluntzeak.

Beste elkarrizketa bat: gazte batek mugikor berria erakusten dio lagunari. Azken modeloa, azken-aurrekoa ordezkatzeko. Telefono-konpainiak "debalde" aldatu dio eta bera gustura.

Nire telefono mugikorrak sei urte dauzka eta duela hilabete batzuk puntu gehiago eman beharrean kendu egin zizkidan Movistarrek. Hamar mila puntu gutxiago aparatu bati etekina ateratzeagatik. Beste batzuk dira jokoaren arauak: sei hilabetero mugikorra aldatu eta telefono-konpainiari leialtasuna hitz-matea.

Kontsumo-gizarteak zoriontasuna diruan eta produktuetan bilatzera bultzatzen gaitu. Eta guk zer egiten dugu horren aurrean? Noiz aldatuko dugu txipa?

"Muturrak atsegin ditugu: 'Callejeros'-etik 'Mujeres ricas'-era egin dugu salto"

usteak uste

Arantzazu Ezkibel

Nazkagarritz betetako mundua

Carioca delako auzia notizia da egunotan hedabideetan. Mundua aldrebes dagoen seinale. Poliziak eta politikariak, herritarren defendatzaileak izan beharko luketenak, beste aldera pasatu eta herritarren erasotzaile izatera pasa dira. Lugoko hainbat pubetan doako barra zuten hainbat poliziak. Doako barra sexuari dagokionez, beste hainbat gauzaren artean. Gehienetan bezala, erasotakoak emakumeak eta atzerritarrak. Mundua aldrebes dagoen seinale dela esan dut, baina munduan nazkagarri asko dauden seinalea da.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Enpresa-erantzukizuna eta merkatu iraunkorrak

Luis Aranberri 'Amatiño'

<http://eibar.org/blogak/amatino/>

Mila inguru enpresaburu bilduak dira egunotan New Yorken, enpresen inguru-erantzukizunaz jarduteko, merkatu iraunkorrak suspertzeko eta mundialtzearen onurak ahalik eta gehien banatzeko. Tartean, bat behintzat, euskalduna.

Asteazkenetik ostiralera bost kontinenteetako mila inguru enpresa New Yorken bilduak dira, duela hamar urte luze Davosko (Suitza) Munduko Ekonomia Foroak (World Economic Forum) proposatu zuen Nazio Batuen eta enpresa pribatuen arteko *"Mundu Ituna"* zertan den aztertzeke. [...]

Laburbilduz, itunaren filosofia hiruzpalau ideia hauetan oinarritu izan da:

Bat. Kapitalismoa ez dago zalantzan baina beti ere eztabai-dagarri da zein eratako kapitalismo-mota.

Bi. Ez dago merkatuak mundialtzen ari direna ukatzetik, baina ezta mundialtzearen onurak ahalik eta gehien barreiatu eta gizarte-premiei erantzuteko praktikak indarrean jarri beharra ere.

Hiru. Iraunkortasuna ez da ingurumenari soilik dagokion egitasmoa. Horrez gainera, behar-beharrezko da merkatu iraunkorrak ere sustatzea, irabazpide errazen azpitik eta espekulazio latzen gainetik.

Lau. Zilegi bezain premiazkoak zaizkie enpresei posibleak, baina baita giza-eskubideak, lan-baldintzak zein ingurumen-arauak betetzea eta iruzurrari muzin egitea ere.

Baloredun merkatu iraunkorrak indarrean jartzea ez da, jakina, egun batetik bestera lortu ahal izango, baina batere negozio-asmorik eta salmenta helbururik gabe mila enpresa hiru urtetik behin (2007an Genevan eta 2004an Sao Paulon) bildu izanak badu gero aparteko garrantzirik. [...]

Mila horien artean, enpresaburu bat euskalduna izatea ez da inondik ere gau erdiko ahuntzaren eztula. Are gehiago kontuan izanik euskaldunok, munduan, 10.000 biztanletatik bat baino ez garena. Eta, gainera, eibartarra.

koplak

Xabier Igoa

Baskoniaren lanari jarriak

Gasteiz aldetik datoz nahiko berri onak, hargatik Baskoniari nire zorionak!

Erreala primeran giroa hain bero, Baskonia primeran ez Baskonia "primero"!

Nahiz jakin izan behar zela nahiko gatxa, ikusi da: lan onak fruituak dakartza!

Nahiz ta puntuak lortu ta egin korrika, lana egin behar da atzetik hasita!

Nahiz ta jokalariaik fin aritu hara: publikoaren lana eskertu behar da!

Ederto pasa dugu urte hontan klaro! Hurrengo urterako hobe ta gehiago!

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak, Goienka eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igonne Osinaga, Ziortza Martín, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



LAGUNTZAILEAK

Euzko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Geurea Euskal Herria

Agurtzane Barrena
(Bai Euskal Herriari ekimeneko kidea)
Arrasate

2010eko Munduko Futbol Txapelketa ekainaren 11 eta uztailaren 11 artean jokatu da Hegoafrikan; beste behin, Euskal Herriko selekziorik gabe ospatuko da nazioarteko futbol txapelketa garrantzitsu hau.

Euskal Herriak bere burua nazioartean ordezkatzeko eskubidea ukatzen dioten horiek txapelketan parte hartuko dute. Espainiar eta frantses selekzioak gureak direla sinestarazi nahi digute. Olatu gorria deiturikoaren bidez euskal herritarren borondatea eta nazio identitatea ito nahi dituzte.

Hori horrela izanik, deialdi berezia egin nahi diogu euskal jendarteari, txapelketan zehar etxeetako balkoietan Ikurrina zintzilikatu dezan. Bide beretik, Euskal Herriko selekzioaren aldeko ikur eta kamisetak inoiz baino arrazoi gehiagorekin agertzera deitzen dugu.

Txapelketak dirauen

bitartean euskal selekzioaren aldarrikapena sustatuko duten ekimenetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Kirol erakustaldiak, triki poteoak... Espainiar zein frantses selekzioek jokatzen dutenean, euskal selekzioaren aldarrikapena zabalduko duten ekimenak antolatuzera deitzen dugu euskal zalegoa. Nazio bat gara, Euskal Herria eta gure burua nazioarte-an ordezkatzeko eskubidea dugu. Munduko txapelketa honetan ez dugu zer ospaturik eta asko dugu aldarrikatzeko!

Nazio bat, selekzio bat, federazio bat.

Geurea Euskal Herria!

Aparkalekuak direla eta

Jasone Giraldo
Arrasate

Dagokionari: hasteko, anbulatorio eta ospitale inguruan lanean aritzen diren udaltzainei zorionak, lana ongi betetzen dutela demostratu izanagatik. Duela hilabete batzuk, goizez, umearekin anbulatoriora joan eta inguru haietan 3 buelta

eman ostean eta txanda galtzeko beldurrez, kotxea espaloï gainean aparkatu nuen, tentu handiz baina, inori, oinezko zein kotxeri, trabarik egingo ez niola ziurtatuz, eta 10 minutuko gauza izango zelakoan. Anbulatoriotik bueltan, isuna jarrita neukan. Ondo egina!

Hori ikusirik, nire galdera da: "Posible litzateke ospitale inguruan lanean aritzen diren udaltzain horiek Loramendi kalera eta Iturripe kiroldegira lan egitera etortzea?"

Amaitzeko, nik neure isuna ordaindu nuen, zilegi jotzen nuelako, gaizki aparkatua nuen eta merezia nuen. Gauza bakar bat eskatzen dut, hala ere: Arrasateko kale zein auzo guztietan irizpide berdinak erabiltzea isunak jartzeko garaian. Iruditzen zait udaltzainek hainbat kale eta auzo ahaztuta dituztela. Ez dut ezjakintasunean hitz egiten; ikustekoa da Iturripetiko espaloitik joatea zein abentura latza den (inoiz otu zait Jonathan Perezi pertika klasetxo batzuk eskatzea espaloitik errepidera jaisteko beharrik ez izateko). Honegatik guztiagatik, norbaiti nire kexa helduko zaiolakoan eta dagokion lekuan

hausnarketa serio eta sakon bat egingo den esperantzaz, agur.

Aire, aire!

Rosa Urzelai
(Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Plataforma)
Arrasate

Jaiegunak datoz, barre egitekoak, kalean ibiltzekoak, erlojuari begiratu barik egutegietatik kanpo dauden beste ordu txiki horietan. Berriro batzeko egunak dira eta harreman berriak egiteko egunak, goizaldean lagunartean eta elkarren ondoan, lagunen arteko ajedun egunak. Iritsi da bai jaietako momentu hori, dultzaina eta txalaparta erritmoak iratzartu eta bizkortzen gaituena. Aire, aire!

Baina jai hasiera horrekin batera, kale ertzean agertzen zaigu indarkeria sexistaren gerizpea. Gizon batzuek pribilegio moduan erakusten duten baimen hori (gogoak emandakoak egiteko), hau da, gura duten guztia egiteko, edozerk balio du, ondo pasatzen ari gara eta. Jaietan egoteak ez dio ematen baimenik eragotzi edo molesta-

tzen ibiltzeko, ez eta emakumeak erasotzeko ere, aitzakiarik gabe emakumeak ezetz esaten dionean limurtu nahian dabile-nari. Ligatzea ez da gogaikarria edo aspergarria izatea.

Ez inbaditu nire espazioa. Aire, aire!

Ez ibili itzulinguruka. Zuk zeuk erabaki. Utzi lekua libre!

Zein ederra den jai giroan ibiltzea! Natural eta normal bizitzea baino hoberik ez dago. Parranda da anfitrioi aparta inibizioak eta lotsak kentzeko. Dena dago prest dibertsioa borborka irten dadin bermatzeko. Ez dago aitzakiarik ezkutatze-ko zein zaren eta adierazteko zer duzun gogokoen. Giro bikaina gure barruak askatzeko eta bai esateko, topera gozatuz.

"...emoixtaxux muxutxuek maitie...". Aire, aire!

Ondo pasau!!!

"...Fiesta, qué fantástica, fantástica esta fiesta, qué fantástica, fantástica esta fiesta, esta fiesta donde...", eta etenpuntu horietan, bakoitzak idatzi eta amets egin dezala gura duen guztia, gura duenarekin eta gura duen lekuan. Aire, aire!

...Eta gogoratu: bai+bai=bai / bai+ez=ez

Eraso sexistarik ez!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Ibarra kalea 6**
20570 BERGARA

**Telefona:**
943 25 05 01

**Faxa:**
943 25 05 13

**Posta elektronikoa:**
goienkaria@goiena.com



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

www.debagoiena.net

Lanbide profilak
Debagoieneko Hasierako Lanbide Prestakuntza zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:

1. maila

- Instalazio Elektrikoen Langilea
- Iturgintzako Langilea

2. maila

- Mekanizatuko Langilea
- Sukalde eta Zerbitzuko langilea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

MATRIKULAZIOA
Ekainaren 28tik Uztailaren 16ra
09:00etatik 12:30era

Non: Debagoieneko Garapen Agentzian.
Nafarroa Etorbidea,21 Pk: 237 20500 Arrasate
e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com
Telf: 943 792890





2010-2011 IKASTURTEA

FONDO SOCIAL EUROPEO



HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA

Nafarroa etorbidea, 21

20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)

Tfnoa. 943792890

Langileen eskubideak "kolokan" jarri dituztelako eta "langileok defendatu behar ditugulako gure eskubideak" egin dute greba orokorrerako deia euskal sindikatu nagusiek. Besteak beste, Zapaterok krisiari aurre egiteko iragarritako neurrien eta lanmerkatuaren erreformaren aurka ere protesta egingo dute, neurri horiekin lan prekariotasuna areagotu egingo delako.

Adolfo 'Txiki' Muñoz > ELAko idazkari nagusia

"Kapitalak gura du langileok pagatzea faktura, eta ez gaude onartzeko prest"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Buru-belarri dabilta sindikatuak datorren martitzeneko greba orokorra prestatzen. Adolfo Txiki Muñoz ELAko idazkari nagusia (Mañueta, Baños de Ebro, 1959) harantz eta honantz dabil greba egiteko arrazoiak azaltzen.

Zergatik greba orokorra?

Batez ere, langileon eskubide asko kolokan jarri dituztelako eta langileok defendatu behar ditugulako gure eskubideak. Jendeari eskatzen diogu atera dadila kalera eskubide horiek defendatzera.

Krisi egoera honetan, greba orokorra egitea ardurabakoa izatea dela diote gobernuek eta enpresaburuek...

Orain dauzkagun eskubideak disfrutatzen ditugu aurretik beste batzuek egin dituztelako grebak. Eskubideak ez datozkigu zerutik.

Ze irizten diezu Zapateroren neurriei, krisitik ateratzeko?

Kapitalaren mendean jarri du bere burua. Sozialdemokraziaren izenean proposatu duenak ez dauka ez buru eta ez hanka. Finantza erakunde eta enpresaburu handien elkarrekin egin die men, haiek agintzen dute-eta.

Ze ekarriko du lan merkatuaren erreformak?

Gezur asko esan dira lan erreformaren aitzakiarekin. Batetik, lanpostu gehiago sortuko direla. Lanpostuak sortzen dira jardueira ekonomikoa dagoenean eta, oster, Espainiako Gobernuaren dekretuak eta lan erreformaren neurriek ondorio kaltegarri bat dute; hain justu ere, murriztu egiten dela jardueira ekonomikoa. Bestetik, lan merkatua malguago egiteko erabiltzen duten aitzakia da langileak kaleratzea zaila eta garestia dela. Baina Europar lanpostu gehien suntsitu dituen herrialdea Espainia dela kontuan izanda, ondoriozta dezakegu baieztapen hori ez dela egia eta langileak kaleratzea oso samurra eta merkea dela. Hirugarren gezurra da esate kontratu finkoak dituzten langileei eskubideak murrizten badizkiegu lortuko dugula lan kontratu behin-behinekoen kopurua murriztea. Azken finean, helburu bakarra dauka lan erreforma honek eta da lan prekariotasuna areagotzea. Hori guztia, enpresariak pila ditzaizen etekin handiagoak.

Zein da krisiaren errudun?

Hau dena gertatu da, batez ere, aberastasuna banatu ez izanagatik. Kapital metaketa izugarria izan da azken 15 urteotan eta gutxi batzuen eskuetan egon den kapital horrek egin du nahi izan duena: espekulazio hutsa. Egoera horrek eroan gaitu krisi honetara, baina kapital handidunek ez dute hori aitortu nahi. Eta, botere politikoa kontrolatzen dutenez, nahi dute geuk denok ordaintzea euren faktura.

Non da krisitik ateratzeko egin zenuten dekalogo?

Eztabaida zabaldu dugu jendartean, esate baterako, fiskaltasunari dagokionez. Gure herrian gertatzen dena onartezina da. Ez da posible elkartasunari eustea hemen daukagun zerga politika aldatzen ez bada. Oso ahula da hemengo fiskaltasuna Europako batez besteko presio fiskalarekin alderatuta.

Gizarte ongizatea dago jokoan?

Bai, jakina. BBVAko presidentek, esaterako, esan berri du kopagoa ezarri beharko litzatekeela Osakidetzan; hau da, jendeak ordaindu egin beharko lukeela osasun zerbitzuengatik. Onartezina da. Zerga politika aldatzen ez bada, egokitzapenak egin beharko dira etengabe, eta beti, premia handien dutenen kontura.

Lopezek urtebete egin du karguan. Ze balorazio?

Oso txarra. Lopez dabil gutxiengo sindikalariekin, UGT eta CCOOekin, akordioak egiten. Horrekin, Lopezek bilatzen du, batetik, bi sindikatu horien babesa gobernuaren jardunarekiko eta, bestetik, Espainiari ekoizketaren uniformetasuna, euskal esparrua bertan behera utziz. UGTk eta CCOOk diote eurek ez dutela egiten politikarik. Bai, zera! Horixe egiten dutela.

Zelakoak dira harremanak CCOO eta UGTekin?

Ez dira onak. Zorritzarrez, ez da posible haiekin ekintza bateraturik egitea. Joko arau batzuk errespetatu behar dituzte lehenbizi, batez ere hauteskunde sindikalen emaitzak. Hemengo gehiengoak ez dira Espainian daudenak. Baina UGTk eta CCOOk ez dute hori onartzen eta horrek badauka esanahi politikoa. Ezin ditugu harreman onak izan gutxiengo sindikal horrek jarraitzen badu joko zikina egiten.



Adolfo Txiki Muñoz martitzenean Arrasaten.

ENEKO AZKARATE

uzten saiatzeraino. Besteak beste, ordu gehiago sartzeari eskatzen dihardu Adegik. Hego Euskal Herriko eta Espainia osoko enpresaburuen artean, Gipuzkoakoek erakusten dute jarrerarik gogorrena.

Segurtasun eta osasunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak egiten duen kudeaketa "ezin okerragoa" dela diozue...

Ez behar-tasak harreman zuzen-zuzena dauka behin-behinekotasunarekin. Eta hori gutxitzen ez bada, etorkizunean lan istripu eta hildako gehiago izango ditugu. Eta lan istripuak edo behin-behinekotasuna saihesteko, eskatzen diogu Jaurlaritzari ikusketa gehiago egin dezala. Gobernuak nahi du sindikalismoaren babesa, patronalari minik ez egiteko. Hor dago arazo nagusia. Horretaz gain, Osalan bihurtu dute *chiringuito*, Espainian egiten den politika bera hemen ere egiteko.

Zerga politikari buruz, oster, "fiskaltasuna enpresarien mesedetan" jarri dela.

Eta kapital errenten mesedetan ere bai. Europako batezbesteko presio fiskala hemen ezartzen bada, 8.000 milioi euro gehiago lor daitezke. Horrek esan nahi du politikoei esaten dutenean ez dagoela dirurik, gezur galanta dela. Elkartasun politika ezinezkoa da zerga politika honekin.

Bakerako Hezkuntza Planaren ezarpenak arazoak sortuko ditu eskoletan?

Dagoeneko sortu ditu eta aurrerantzean sortuko ditu. Doktrina politiko jakin bat ezarri nahi dute geletan. Helburua da Espainiako Konstituzioa bermatzea hezkuntzan.

Zela baloratzen duzu ezker abertzaleak eta EAK egin berri duten elkarlanerako apustua?

ELA da klaseko sindikatu abertzalea. Baina ez dugu egiten politika alderdi baten alde edo bestearen aurka. Hori esanda, begirunez ikusten dugu EAK eta ezker abertzaleak Euskaldunaren domekan eszenaratu zuten akordioa. Orain, bestade, espero dut ETAK bertan behera utz dezala ekintza armatua behin betiko.

goiena.net/bideoak
Elkarriketa osoa, webgunean.

FISKALTASUNA
"Ez da posible elkartasunari eustea zerga politika aldatzen ez bada"

UGT ETA CCOO
"Ezin ditugu harreman onak izan gutxiengo sindikalak jarraitzen badu joko zikina egiten"

Eta LABekin?

Azken boladan, esparru batzuetan, zerbait aurreratu dugu eta balioa ematen diogu horri. Beste esparru batzuetan, oster, negoziazio kolektiboan, esate baterako, asko daukagu eztabaidatzeko.

Gipuzkoan, metaleko lan hitzarmenean, etengabeko tirabiratan zabilzate sindikatuak eta enpresaburuak.

Adegiren portaera oso gogorra da, lan hitzarmen kolektiboa lortutakoa bertan behera

Dena
astroago
doan garaian




Gipuzkoa, bizkor

Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihasbide "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihasbidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.





Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13

Eskaintza www.hotelsantuariodearantzazu.com

- 46 logela
- 200 pertsonentzako jangela
- Eguneko menua eta karta
- Familientzako menuak asteburuetan
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak

Egunero zabalik



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Bereztasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza

www.errekajatetxea.eu

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56

Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15

www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

Martitzenetan itxita



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55

Eskaintza

www.restaurantelasa.com

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.



Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



Zumelaga jatetxea



Kalitate turistikoa

San Antonio 3 / BERGARA
Tel.: 943 76 20 21

www.zumelaga.com

Eskaintza

- Enpresako bazkari eta afariak
- Despedidak, ezkontza eta bataioak
- Karta eta menu berezia
- Elbarriendako sarrera eta irteera egokituak

Igande eguerdietan zabalik eta astelehenetan itxita

JAIK > SANJUANAK

Uste baino jendetsuago hasi dira aurtengo San Juan jaiak

Ikuskizun ikusien artean zezenak egoten dira; horren adierazle da herritar asko zezen-plazara sartu ezinda geratu direla

U.MADERA/J.BEREZIARTUA > ARRASATE Argazki tradizional eta berriak utzi dituzte sanjuanek. Tradizionalen artean, jendetza batu da bezpera eguneko ekitaldietan: gazteek antolatutako txupinazorako, bazkarirako (180 lagun gaztetxean, eta kabitu ezinda beste asko) eta makala jasotzeko.

Azken ekitaldi horretan, Joseba Iglesias gazteari omenaldi hun-kigarria egin zioten.

San Juan harro-harro eraman zuten Udal Gobernuako kide eta bestelako ordezkari politikoek, osoko bilkuren aretotik parrokiaraino. Eta gauean, jendea zain izan zuten 45 urte bete dituen dan-

borradak, eta, jakina, errementari-dantzak. Danborradan, Realaren eta Danok-Bat elkartearen ereserkiak jo zituzten.

Argazki berrien artean, Kuku-biltxok egindako dragoia estreinatu zuten sua pizteko, eta Mikel Gonzalez Realeko jokalaria ikusi genuen desfilatzen.



Pello Urizar zinegotzia erraldoietako bati oroigarri i



Herriko agintariak prozesioan.



Ohorezko aurrekua Herriko plazan.



Alkatea, aurrekua egin ondoren zapata zaharrak sutara botatzen.



Hainbat gazte bildu ziren Ferreriasen egin zen txupinazoan, jaiei hasiera emateko.



Kalez-kale ibili ziren dantzan, Herriko plazaraino.



180 gazte inguruk giro paregabea bazkaldu zuten gaztetxean.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

arbolapeta
beinke
arrasate

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



OÑATI GARAJEA
PEUGEOT ETXEKO TAILER OFIZIALA

Salmenta, mekanika, txapa eta pintura

Goribar auzoa 9, OÑATI
Tel.: 943 78 13 50 • Faxe: 943 78 33 69
garageonati@euskalnet.net



segitzen.



Koadrilek lehenengoan jaso zuten makala, inongo arazo barik.



San Juan sua salto egitera ausartu ziren gazte zein helduek.



Makala jaso ondoren, gazte koadrilak dantzan.



Dragoi berria.



Realeko Mikel Gonzalez *Gontxa* jokalaria arrasatearrak omenaldia jaso zuen.



Pajero-ri aurrekua dantzatu zioten.



Herriko plazan San Juan suaren aurrean dantza egin zuten.



Nagusien danborrada.

ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA / JON BEREZIBAR / IMANOL SORIANO



URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



INAUGURAZIOA > ETXALUZE ERAIKINA

Uztailaren erdialdean irekiko dute Etxaluze eraikina

Datozen bi asteotan Abaroa berriko tabernaren kudeaketa adjudikatuko du Udalak, eta Abaroakoek egoitzako lekualdaketa egin beharko dute

U.M. / T.M. > ARRASATE

Inauguratu dute Arrasateko eraikin berria: Etxaluze. Atzo, eguna, egin zuten inaugurazio ekitaldia, San Juan egunean 80 urte-tik gorakoei egiten zaien omenaldia aprobetxatuta.

Herriko agintari eta udal ordezkari politikoekin batera, Arrasateko lau egoitzetako ordezkariak izan ziren ekitaldian. Eta, jakina, baita etorkizuneko erabiltzaile eta herritar kurioso makinan bat ere.

Hori bai, ekitaldiaren ostean eta 80 urtetik gorakoendako omenaldiaren ostean, atzera ere Etxaluze eraikinaren ateak itxi egin zituzten. Hainbat arrazoiengatik. Adibidez, kanpoko aldeko urbanizazio lanak bukatu barik daudelako.

Aurreikuspena da uztailaren erdialdean zabalduko dituela behin betiko ateak. Besteak beste, Udalak adjudikatu barik dauka egoitzako taberna zeinek kudeatuko duen; bederatzi lagunen eskaerak dituzte mahai gainean aztertzeko. Horretaz gainera, Abaroa egoitzakoek trasladoo egin beharko dute egoitza berria, eta lekualdatze hori datorren astetik aurrera egitea dute aurreikusita.



Arrasateko gainerako lau egoitzetako ordezkariak ere parte hartu zuten inaugurazio ekitaldian.

ARANTZAZU EZKIBEL

ARGITASUN HANDIA

Kontuak kontu, atzo askok ikusi zuten aurrenengo aldiz Arrasateko eraikin berria. Eta seguru euren arreta piztea lortu duela, eraikin singularra delako.

Askoren kezka izan da, adibidez, eraikin ilun samarra ez ote den izango, leihoak txikiak direlako. Barrua, baina, argi-argia dauka, barrualdeko espazioak elkarrekin konektatuta daudela.

Hau da, goiko solairutik, San Andresko alkatetzatik, Abaroa egoitzaren taberna ikusi egiten da, beheko solairuan dagoena, alegia. Eta justu taberna horren paretetako bat, erre kara ematen



Asier Hormaetxe eta Aritz Etxebarria arkitektoak.

ARANTZAZU EZKIBEL



Taberna.

A.E.

"Sistema konplexu baten bitartez lortu dugu lurpeko aire eta ura erabilia eraikina hoztu edo epeltzea, beharren arabera"

Asier Hormaetxe > Arkitektoa

"Ikusten bada bertara iristeko segurtasun handiagoa behar dela, behar den lekuan eskatzeko gertu gaude"

Jose Riviere > Abaroako presidentea

duena, kristalera handi-handia da. Horri esker argitasuna izugarria du Etxaluzek.

SISTEMA BERRITZAILEAK

Bestalde, horren agerikoak ez diren elementu kuriosoak ere baditu Etxaluzek. Adibidez, eraikina berotu eta hozteko lurpeko tenperaturaz baliatzen da. Asier Hormaetxe Etxaluze diseinatu duen arkitektoetako baten xehetasunen arabera, geotermia sistema erabiliko dute.

Horren arabera, hiru hodi lurpean 100 metro sartu dituzte eta horien bitartez, ura eraikineraino bideratzen dute. Kontua da lurpeko tenperatura dela neguan kanpoko aldekoa baino epelagoa, eta udan, berriz, hotzagoa. Horri esker, lurpeko ura baliatuta, eraikina berotu edo hoztu egiten dute eta eraikinaren tenperatura erregulatzen duen galdara askoz ere gutxiago erabiliko dute.

Horrez gain, eraikinaren estalkiak geruza bikoitza dauka. Eta bi geruzen artean, aire kamara. Hala, lur azpiko hodian beste sistema batekin geruzen artean dagoen airea hoztu edo berotu egiten dute, eraikinari berari epeltasuna edo freskotasuna emanez.

POLITIKA > AZKEN OSTIRALA

Presoen eskubideen alde bat egingo dute lau udal taldek gaur

EA, Alternatiba-Zutik, Aralar eta ezker abertzaleak deitu dute elkarretaratzea Herriko Plazan (19:30)

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Etixeratek azken egubakoitzean presoen alde egiten duen elkarretaratzearekin bat egin dute lau udal taldek: ezker abertzaleak, EAk, Alternatiba-Zutik-ek eta Aralarrek. Ekaineko Azken Ostiraleko aldarrikapenaren helburua,

aurrekoena bezala, euskal presoen eskubideen defentsa izango da.

Maiatzean egin zen elkarretaratzea Arrasateko musika taldeek deitu zuten. 18 musika talde, guztira; babes handia, beraz. Bada, elkartasunak mugak hautsiko ditu, beste behin. Izan ere,

gaur, San Juan jaien erdian egingo den kale agerraldian, Udaleko lau taldek bat egingo dute.

HERRIKO PRESSEN EGOERA

Etixeratek euskal presoen kolektiboaren aurkako "errepresio politika" salatu du: "Euskal preso politikoen kolektiboari urraketa sistematikoak aplikatzen zaizkio. Gaixotasun larriekin daude zortzi preso politiko, beste 50 presori zigorrak luzatu dizkiete eta gehienak dispertsaturik daude etxetik ehunka kilometrotara".

Hala, Arrasateko presoen egoerak "berezikiki" kezkatzen du Etixerat. Jon Agirre eta Josu Uribetxeberria "larri" gaixo egon arren espetxean jarraitzen dutela salatu dute. Gainera, Jon Agirre eta Jose Ignacio Gaztañagari biziarteko zigorra ezarri dietela ere

kritikatu dute, eta baita, Jon Agirre ez ezik, herriko preso guztiak ere dispertsaturik daudela.

ELKARTASUNA, "DELITU"

Bestalde, edozein elkartasun ekimenen aurkako errepresioa areagotu egin dela dio Etixeratek: "Senideek miaketa umiliagarriak jasan behar izaten dituzte aurrez aurreko bisitetara sartzeko". Dagoeneko herriko presoek ehundik gora bisita galdu dituztela jakinarazi du senideen elkarteak, eta horrela presoen komunikazio eskubidea "etengabe" urratzen dela uste dute.

Horrez gain, presoen aldeko mobilizazioen aurkako jazarpena areagotu egin dela dio Etixeratek, eta eskubideak aldarrikatzea delitu bihurtu dela diote. Elkarretaratzea gaur izango da Herriko Plazan, 19:30ean.

> OSPAKIZUNA

Uztailaren 4an ospatuko du errozioa Al-Andalus elkarteak

Al-Andalus elkarteak errozioa ospatuko du datorren uztailaren 4an. Urtero moduan, uztailako lehen domekan ospatuko dute andaluziarrendako hain berezia den eguna. Ospakizunak 10:30ean hasiko dituzte Musakolako ermitan egingo duten mezan. Mezaren ostean, egun osoan zehar ez dute aspertzeko astirik izango. Euskal Herriko beste herri batzuetako andaluziarrekin harreman sendoa duten seinale, ondoko herrietakoak ere izango dira gurean. Oraingoan, 16 etxe etorriko direla ziurtatu dute.

KIROLA > ATLETISMOA

Arrasateko Atletiko taldeko atletak dominekin itzuli dira

Ekainaren 19an eta 20an Espainiako atletismo txapelketa jokatu zen, eta bertan, hiru urre lortu zituzten arrasatearrek

NAROA ODRIOZOLA > ARRASATE
Aurreko asteburuan, ekainak 19 eta 20, Espainiako atletismo txapelketa jokatu zen Lloret de Marren (Katalunia) eta han egon ziren Arrasateko Atletiko taldeko gazte mailako neska-mutilak. Bada, sasoi onenean daudela erakutsi zuten, emaitza onak lortu zituzten-eta.

Batetik, pertika saltoan, Maialen Axpek eta Iñigo Uribarenek dominak lortu zituzten. Axpek urrea irabazi zuen 3,65 metroko saltoa eginda eta Uribarenek salto hirukoitzean urrea eskuratu zuen 14,60 metroko saltoarekin. Haizea aldeko zuela egin zuen, atletaren marka one-na 14,26 da-eta.

Bestetik, Euskadiko 4x100 errelebo lasterketan Eukene Dorronsorok urrea lortu zuen. Luzera saltoan, Chen Jianek ez zuen zorterik izan eta ezin izan zuen dominarik irabazi. Izan ere, bosgarren postua eskuratu zuen 6,40 metroko saltoarekin. Hala ere, Jianek bere marka pertsonala hobetu zuen.

EUSKADIKO TXAPELKETA
Espainiako atletismo txapelketa-rekin batera, kadete mailako Euskadiko txapelketa jokatu zen Durangon. Bertan ere lortu zituzten dominak Arrasate Atletiko taldeko atletek.

Malen Ruiz de Azuak urrea eskuratu zuen 2,70 metroko saltoarekin. Gero, euria zelako, bertan behera utzi behar izan zuten proba, arriskutsua izan zitekeelako. Salto hirukoitzean, Izar Gorroñoagoitiak zilarra eskuratu

Emaitzak

- Maialen Axpe > Pertika**
3,65 m > Urrezko domina
- Iñigo Uribarren > Hirukoitza**
14,60 m > Urrezko domina
- Malen Ruiz de Azua > Pertika**
2,70 m > Urrezko domina
- Izar Gorroñoagoitia > Hiruko.**
10,50 m > Zilarrezko domina

zuen 10,50 metroko saltoa eginda. Asteburu honetan Espainiako kadete mailako lasterketa egingo dute, eta bertan parte hartzeko gutxieneko markak dituzte Malen Ruiz de Azuak eta Izar Gorroñoagoitiak. Beraz, Arrasateko Atletiko taldeko neska-mutilak marka guztiak birrintzen ari dira.



Txorbela otxotea Granadan, kontzertua eman aurretik.

TXORBELA

KULTURA > KONTZERTUAK

Txorbela otxotea Andaluzian da kontzertuak eskaintzen

Granadako Unibertsitateak gonbidatuta Espainiako hegoaldera joan da Arrasateko Txorbela zortzikotea, astebeterako

N.O. > ARRASATE
Duela urtebete inguru sortu zen Txorbela otxotea eta ordutik hona kontzertu asko eskaini dituzte, ezkontzetan eta festa giroan egindakoak gehienak. Orain, Granadako Unibertsitateak gonbidatuta, Andaluziara joan da taldea hainbat

kontzertu eskaintzera. Hain zuzen ere, astebetean hiru saio eskainiko dituzte Granadan eta Alhama de Granadan. Lehenengoa martitzenean (ekainak 22) eman zuten, Moraiman. Bigarrena ekainaren 23an Granadako Carmen de la Victoria erresidentzian eskaini

zuten. Eta bihar, ekainak 26, Espainiako hegoaldean egingo duten azkenengo kontzertua emango dute Alhama de Granada herrian. Domekan itzuliko dira herrira Txorbela taldeko kideak.

OHITURA BERRESKURATUZ
Arrasateko hamalau lagunek osatzen dute Txorbela otxotea. Ez dira berriak musika munduan; izan ere, taldekide gehienek Santa Agedako koruan abesten dute. Taldeak Mikel Arregi du zuzendari, eta, hark

dioenez, taldearen helburua otxotearen formula berreskuratzea da: hau da, gutxienez zortzi gizonezkoren ahotsez osatutako taldea izatea.

Egubakoitzetan entseatzen dute, eta horretarako, Arizmen-di ikastolaren Gaztelupeko egoitzan elkartzen dira. Euren errepertorioa 22 kantuz osatuta dago eta hiru multzotan daude banatuta: eliza musika, euskal folklorea eta munduko kantuak. Taldeak Arrasateko kantuak berreskuratzeko asmoa dauka.

MUSIKA > GAZTETXEKO KANTUA

Gazte Asanbladako kideek San Juan jaiak girotzeko kantua egin dute

N.O. > ARRASATE
Iazko sanjuanetan Jai batzordeak kantu bat egin zuen. Bada, Gazte Asanbladako kideei ideia ona iruditu zitzairen, eta aurreko gauza bera egiteko proposamena egin

zuten. Asanbladako parte-hartzaileek baiezkua eman zutenez, kantua atera berri dute AGAKOko kideek. Jaietan giroa pizteko asmoz, Gazte Asanbladan parte hartzen

duten hainbat lagun bildu dira abestia egiteko; hiru neska-mutilek euren ahotza prestatu eta bik gitarra afinatu ondoren, domeka arratsalde baten grabatu zuten abestia.

'GAZTETXEA, GURE ETXEA'
Libre izateko nahiez eta ideien borrokatzez, sorkuntza bide herrian buru gazte denen ekimenez. Gaztetxea, gure etxea. Hala xe dio kantuak. Alaia, bizia eta festarako paregabea da. Guztion artean egin dute letra, eta ber-

tan, gazteen nahiak eta desioak islatzen dira. Jaiei aipamena egiteaz gainera, gaztetzear ere hitz egiten du kantuak: *2010eko sanjuanak iritsi dira Arrasateko dragoiaren sua berriz hemen da. Garagartzatik Zigarrolara aurrera bolie entzuten da... klasean hasi, lanean segi, gaztetzear bizi.*

San Juan jaietako kantua izango dena gaztetzearn eta hainbat tabernatan entzungai izango da jaietan zehar. Beraz, ondo pasatu, gozatu eta dantzatu!



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Ezker abertzaleko, EAJko eta Aralarko hautetsiak eta hautetsi ohiak batu ziren, besteak beste.

MIREN MANIAS

POLITIKA > UDALBILTZA

Herriko Bai Udalbiltzari Babes Taldea aurkeztu dute asteon

Uztailaren 15erako, Udalbiltzaren kontrako epaiketa hasten den egunerako bilkura deitu dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bergarako Bai Udalbiltzari Babes Taldea aurkeztu dute asteon. Hainbat hautetsik, hautetsi ohik, elkarte kultural eta gizarte eragileetako ordezkariak eta norbanakok osatzen dute eta osoko bilkuren aretoan batu ziren aurkezpenarako, martitzenean.

Babes taldekoek gogora ekarri zuten, Udalbiltzaren kontrako epaiketa uztailaren 15ean hasiko da Madrilan. 22 pertsona daude inputatuta, gehienak udal

hautetsi izandakoak, eta akusazioek 10 eta 25 urte arteko espetxe zigorra eskatzen dute, "jarduera deliktiborik ez dagoen kasu baten".

Era berean, aldarrikatu zuten 1999ko irailean Euskalduna jauregian egindako Udalbiltzaren batzar sortzailean onartu ziren bost helburuen alde lan egitea beharrezkoa eta zilegi dela, eta ezin dela delitutzat jo: "Helburu eta lan-ildo horietan aurrera egi-teagatik hautetsi eta alkateak kriminalizatzea demokraziaren aur-

kako ekimena da, are gehiago kontuan hartuta epaituak sufragio unibertsalez aukeratutako herri-ordezkariek direla".

Horrekin batera, "Udalbiltza eta bertako hautetsi eta langile ohien aurka Madrilgo Auzitegi Nazionalan eramaten ari den auzibidea irmoki" salatu zuten eta Estatuko Gobernuari eskatu, "Estatuko fiskal nagusiak gaur egun mantentzen duen akusazio publikoa erretira dezala".

Bestetik, epaiketa hasiko den egunean, uztailaren 15ean, 19:30ean San Martin plazan egingo den elkarretaratze isilerako dei ere egin zuten.

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Elkororen aldeko bizikleta martxa uztailaren 2an

Kamisetak jarri dituzte salgai eta martxan jantzita eroateko eskatu dute

M.B. > BERGARA

Jose Luis Elkoror Libre! plataformak bizikleta martxa erraldoia antolatu du uztailaren 2rako. 18:45ean abiatuko da, San Martin plazatik, eta dei egiten diete parte hartzera "herriko giza esparru guztiei; ume, gazte, nagusi eta baita hirugarren adinekoei ere". Izan ere, "denok pedalei emanez norabide berean, Jose Luis etxean ikusteko

unea gertuago egongo da", azpimarratu zuten plataformako kideek ekitaldiaren berri emateko egindako prentsurrekoan.

Agerraldi hartan Lokatza ziklismo taldeko kideek ere hartu zuten parte eta taldeko txirrindulari gazteek aprobetxatu zuten aukera herriko gazteriari ekitaldiarekin bat egin dezan eskatzeko.

Bestalde, hilaren 27ra arte Elkororen aldeko kamisetak saltzen jardungo dute plataformako kideek herriko kaleetan, 15 eurotan. Hala, dei egin dute bizikleta martxara eta San Martzial erromeriara kamisetarekin joateko.

GAZTEAK > AISIALDIA

Gazteendako ekintza ugari antolatu dituzte uztailerako

M.B. > BERGARA

Udalak uztailerako ekintza ugari antolatu ditu gazteendako.

Uztailaren 7rako Arcachongo aquaparkera irteera antolatu dute DBHko lehen mailatik laugarren mailara artekoendako. Prezioa da 18 euro eta izenematea da ekainaren 30era arte. Uztailaren 9an eta 10ean kanpaldia egingo dute DBHko hiru eta laugarren mailetakoei Gorlan. Izenematea da uztailaren 1era arte eta prezioa, 12

euro. Uztailaren 14an, berriz, Bidarraira *rafting* egitera joateko aukera izango dute DBHko lehen mailatik laugarren artekoek. Prezioa da 20 euro eta izenematea da uztailaren 1etik 7ra. Uztailaren 16an eta 17an beste kanpaldi bat egingo dute Gorlan, DBHko lehen eta bigarren mailakoendako. Prezioa da 12 euro eta izenematea uztailaren 1etik 8ra.

Izenemate guztiak kultura etxean dira.



JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentroetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatueta.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Uztailaren 7tik 13ra (biak barne)



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxe: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.iparragirre.net - jniparragirre@edunet.es

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

Euskarazko liburuak erdi preziora astelehenetik aurrera

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Irakurzaletasunaren Astea antolatuko du ekainaren 28an hasi eta uztailaren 3ra arte Jardun elkarteak. Egitasmoaren helburu nagusia da euskal irakurketa sustatzea.

Hori horrela, aste osoan barrena Elkar Megadendan erosten diren euskarazko liburuak erdi prezioan eskuratu ahal izango

dira. Haur, gazte zein helduendako literatura erosi ahal izango da merkeago.

Funtzionamendua honakoa izango da: liburuak erosterakoan saltzaileak emandako erosketa txartela Jarduneko bulegora eraman beharko da, eta euskara elkartearen %50 abonatu dute liburu bakoitzeko –gehienez bi liburu pertsonako.



Askotariko jostailuak batu dituzte Jarduneko bulegoan.

M.B.

Gaur hasi eta etzira arte jostailu truke azoka Arrizurin

Gaur, egubakoitza, 18:00-20:00 ordutegian egongo da zabalik; zapatuan, 10:00-13:00 eta 18:00-20:00 ordutegian eta domekan, 10:00-13:00. Erabilitako 50 bat jostailu batu dituzte Jarduneko bulegoan. Hara eroandako jostailu bakoitzarengatik txartela eman dute; bada, txartel hori beste edozein jostailurengatik trukatu ahal izango da Arrizuriko azokan.

Jende ugari batu zen San Juan suaren bueltan

Herritar ugari batu zen eguazten gauean, San Juan bezpera, Herri Mugimenduak antolatutako suaren bueltan.

Txalaparta eta adar doinu artean urteko gauza txarrak sutara bota eta gero, hainbat gaztek sorgin dantza egin zuten suaren inguruan. Horrekin batera ipuina ere kontatu zuten eta trikiti doinuekin dantza egiteko aukera ere egon zen.



HILARIO AZKARGORTA

oharrak

AISIALDIA

> Seminarioko elizako aztarnategia ikusteko bisita gidatua

Bihar, zapatua, egingo dute, 11:00etan, eta doan da. Ikerketa historiko-arkeologikoko bigarren faseko lanen berri emanango dute. Informazioa eta izenematea Turismo bulegoan da, 943 77 91 28 zenbakian.

12:00etako meza nagusiaren ondoren Hotel Arantzazun egingo dute bazkaria. Bestalde, interesa dutenek aukera izango dute komentuko klaustroan dagoen erakusketa ikusteko. Bergarara bueltatzerakoan, nahi duenak aukera izango du Loiolara joateko.

DEIALDIA

> Hurrengo odol ateratzea hila-ren 28an izango da

Ohi bezala, Seminarioan duten egoitzan egingo dute. Uztaileko odol ateratzeei dago-kienez, 14an eta 28an izango dira. Abuztuaren berriz, bakararra egongo da, 11n.

ERROMESALDIA

> Arantzazuko erromesaldirako izenematea zabaldu dute

Uztailaren 4an izango da, eta autobusa abiatuko da 09:30ean geltokitik. Izenematea da 40 euro eta txartelak eskura daitetzke Zatoia jantzi-dendan.

AZPEITXI

Jatetxea

- Oilaskoa
- Paella
- Gisatua
- Entsalada errusiarra
- Patata-tortilla
- Erredondoa saltsan

Arenerreka 13 • 943 76 55 00

Mujika

gozotegia



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako natazko eta marrubizko izozkiak

Artekalea 3 • 943 76 10 34

ATXEGA ARDOAK S.L.

LOPEZ OJEDA

- Mahaiko ardoa: Lopez Ojeda
- Errioxakoak: Señorío de Ojeda, Tinto Covila eta Luis Cañas
- Nafarroakoa: Castillo de Ojeda
- Ondua: Marques del Puerto, Luis Cañas eta Labarca
- Rueda Cerrosol eta Pampano
- Txakolina: Santarba eta Basa-Lore
- Sagardoa: Bere-Aran
- Ura: Alzola

Amillaga 25 • 943 76 27 76 / 38 52

ETXAGI

JATETXEA

- Patata-tortilak
- Oilaskoak
- Bildotsa saltsan
- 14:30ean bazkaria bertara eramango dugu

Masterreka 8 • 943 76 53 12



San Martzialetan zure zerbitzura



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bonboiak

San Pedro 9 • 943 76 10 51

PATINAJEA > LE MANSKO 24 ORDUAK

Hanka Labanka taldeko hamar lagun, iazkoa hobetzera

Bergarako Hanka Labanka patinaje taldeko kideak Le Mansko iraupen proban izango dira

XABIER URTZELAI > BERGARA

Iaz bizitako esperientziaz maite-minduta, asteburuan Bergarako Hanka Labanka patinatzaile taldeko kideak Frantziako Le Mans zirkuitu entzutetsuan izango dira, han egiten duten iraupen luzeko proban parte hartzen (www.rollers24.com). Iaz taldeko bost lagun joan ziren 24 ordu irauten duen probara, eta kide-

ek oso gustura baina neurri berean leher eginda amaitu zuten lasterketa. Orduan, ibarreko ordezkariak auto zirkuituari 102 itzuli emateko gauza izan ziren, eta aurtan marka hori gainditzeko asmoz doaz.

HAMAR ORDEZKARI

Hala, marka berria ezartzeko asmoz hamar laguneko taldea



Le Mansen parte hartuko duten Hanka Labanka taldeko kideak euren babesle Embalan 3 enpresaren atarian.

HANKA LABANKA

osatu dute aurtengo ediziorako: Jose Luis Gallastegi, Jon Ander Egaña, Ruben Oural, Lorea Juldain, Andoni Alberdi, Remi Arantzabal, Joxean Iñarra, Teo

Nogales, Agustin Oianguren eta Gaizka Otadui izango dira patinatzen, txandaka, eta eurekin batera Kuxi joango da, laguntzaile moduan.

ORDU GUTXI BARRU

Hanka Labankakoek bihar 04:00etan hasiko dute proba eta 15.000 patinatzailearekin batera lehiatuko dira.

Bergarakoek emaitza onak lortu dituzte Ordizian

Zapatuan Ordizian jokatu zuten Gipuzkoako udako saria. Eta bertan, Bergarako gazteek emaitza onak lortu zituzten eta domina askorekin etorri ziren etxera.

Argazkian daude: Igor Okina, Monika Alberdi, Ane Eraña, Ane Santxo, Xabier Jauregi, Joseba Osa, Oihana Garate, Arantzazu Lopez, Ainhoa Sasieta, Ane Jauregi, Ainhoa Osa eta Leire Sanz.



GOIENKARIA

> ZIKLOTURISMOA Herriko ziklistek Lodosara irteera egingo dute uztailean

Bergarako zikloturista elkar-tekoek urteroko irteera egingo dute uztailaren 10ean, Lodosara. Bizikletan joango dira hara (117 kilometro), 07:00etan San Martin plazatik irtenda.

13:00 inguruan iritsiko dira Lodosara, eta bazkaldu eta gero, 19:00 inguruan bueltatuko dira Bergara, autobusez. Irteeran esku hartzeko zabalik dago izenemate epea –uztailaren 3ra arte–, eta Igartua eta I2 bizikleta dendetan apunta daiteke.



Soraluze erdialdean 22 ETXEBIZITZA ETA GARAJE

Etxebizitza tasatu bat baino zertxobait gehiago ordainduta.

Soraberri Promozioak informazioa:
689 42 07 61

Eraikitzailea: Egaralur
www.egaralur.net



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77



Gure plateren
prezioak ez
ditugu igo.

Eta gainera,
plater berriak
dauzkagu.

Proba itzazu!

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA



Xanpainezko
sangria
BERRIA

MUSIKA > ELKARTASUNA

Udal Bandak Jose Luis Elkorori eskainiko dio kontzertua etzi

Udal Musika Bandaren alde Elkorok egin izan duen lana eta emandako konfiantza eskertu gura diote modu horretan musikariek

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Berezia izango da domekan Udal Bandak egingo duen kontzertua. Berezia, hain zuzen, omenaldi txiki bat izango delako. Omenaldia, Jose Luis Elkorori.

Elkorok Musika Bandaren alde egindako lana eskertu nahi diote modu horretan bandan ibili diren eta dabiltzan partaide guztiek.

EGITARAUAN, GUTUNA

Musika Bandako kideek badakite Elkorok kontzertuen egitarauak jasotzen dituela beti. Elkorro oso musikazalea da, eta baita herriko bandaren jarraitzaile fina ere. Bada, domekako kontzertuko egitarauaren esku-orriak Elkorori zuzendutako gutuna izango du atzealdean.

Lerro horien bitartez, Elkorok musika bandaren alde egindako lana eskertu nahi diote. Batez ere, Euskal Herriko herrietan musika bandak desagertu ziren garaia gogoratu dituzte gutunean. "Garai latz eta larri haietan, erakutsi zenuen babes eta maitasuna", dio gutunak. Izan ere, garai hartan Debagoieneko musika banda guztiak desagertu egin ziren, Bergarako Udal Banda izan ezik.



Bergarako Musika Banda.

GOIENKARIA

1832A EZKERO MARTXAN

"Bergaran musikari eman zenion konfiantza, adore eta bultzadari esker, gaur egun Bergarako musikari eta musika zale guztiok, 1832. urtean sortu eta inoiz jotze-ari eten ez dion banda bat daukagu", gogoratzen diote gutunean Elkorori.

Egindako lan bikaina esker-tzeaz gain, "laster gure artean" izatea eskatzen dute musikariek gutunaren bitartez.

EGITARAUA

Domekan 12:30ean izango da kontzertua, Espoloian. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren 1832 lanarekin hasiko dute kontzertua. Ondoren, *Saturnalia* obertura joko dute, B. Haemhouts musikaria-rena. Fantasiatzko *Around the world in 80 days* lanarekin jarraituko dute gero. O. Schwarz musikariaren lana da hori.

Miguel Gonzalez Bastidaren euskal estapak joko dituzte ondoren bandako musikariek; hain zuzen, *San Martzial* izeneko lana. Amaitzeko, Alberto Dominguezen *Frenensi* lana joko du Musika Bandak Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendari-tzapean.



Martitzenean diplomak jaso zituzten ikasleak.

MUSIKA ESKOLA

MUSIKA ESKOLA > OSPAKIZUNA

Ikasturte amaierako diplomak banatu dituzte

A.E. > BERGARA

Musika Eskolak ikasturte amaierako jaia egin zuen martitzenean. Urtero egiten duten moduan, ikasleei diplomak banatu zitzaizkien. Hain zuzen, aurten 30 ikasle jaso dituzte diplomak: hiruk 3. mailako diploma jaso zuten eta gainerakoek 2. mailako diploma.

KONTZERTUA

Diplomak jasotzeaz gain, ikasturtean zehar ikasitakoak erakutsi zituzten martitzenean Musika Eskolako ikasleek. Gurasoen aurrean euren maila erakutsi zuten; eta zelan, gainera!

Marije Ugalde Musika Eskolako zuzendaria pozik zegoen gatzetxoek egindako lanarekin: "Oso kontzertu polita eskaini dute eta dena ondo irten da".

Amaitzeko, *lunch*-a izan zuten ikasleek eta kontzertura joan ziren familiartekoei.

UDALEKU MUSIKALAK

Hala, amaitutzat eman dute ikasturtea Musika Eskolan. Gogoratu behar da, baina, aurten ere udaleku musikalak izango dituztela 4 eta 12 urte arteko umeek.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

AZOKA TXIKIA KALEAN

**Bedelkar-eko
merkatariak kalean**

**uztailak
2-3**



Izugarrizko beherapenak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

AUZOAK > FESTAK

Ez! oñatiarrek kontzertua egingo dute Torreauzoko jaiak hasteko

Musika, mus txapelketa, magia ikuskizuna, meza, 'lunch'-a eta krosa izango dituzte, besteak beste

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Hilaren 29a da San Pedro eguna, baina Torreauzon aste bukaeran ospatuko dituzte jaiak. Gaurtik domekara arte askotariko ekitaldiak egingo dituzte.

19:00etan hasiko dituzte jaiak etxafuego jaurtiketarekin. Jarraian txakolina eta gazta pinxoak dastatzeko aukera egongo da. 22:30ean, rock kontzertua egingo dute hiru taldek. Hain zuzen ere, Ez! oñatiarrek, Red District bergararrek eta Herri Guda ormaiztegiarrek. Auzoko ermitaren ondoan jarriko dute agertokia.

MUS TXAPELKETA

Zapatuan, 09:00etan, etxafuego jaurtiketa egingo dute auzotarrak esnatzeko. 11:00etan kalejira egingo dute trikitilariekin baserririk baserri. Bazkaldu aurretik, txikiteoa egingo dute auzotarrek eta Torreauzon dauden guztiek.

16:30ean, 26. mus txapelketa jokatu dute. Parte-hartzaileek izena eman dezakete txapelketa hasi aurretik. Sariak banatu dituzte irabazleen artean.

UMEENDAKO EKINTZAK

Bihar arratsaldean bi ekitaldi egingo dituzte umeendako: alde batetik, 17:30ean, Eriz magoak ikuskizuna egingo du. Askotariko trikimailuak egingo ditu txiki- kien gozamenarako. Gainera, umeek parte hartuko dute ikuskizunean; beste alde batetik, 18:30ean, txokolate-jana egingo dute, eta umeen artean gozokiak banatu dituzte.

KROSA

Domekan ere etxafuego jaurtiketarekin esnatuko dira Torreauzon. 11:00etan, XIII. herri krosa jokatu dute. Parte-hartzaileek 7,6 kilometro egin beharko dituzte: San Pedro-Olate-San Pedro, hain zuzen ere.



Ez! taldekoek kontzertua egingo dute Torreauzon.

GOIENKARIA

12:30ean meza egingo dute auzoko ermitan, eta 13:00etan lunch-a egongo da, trikitilariekin eta dantzariekin.

HILAREN 29AN, MEZA

Bestalde, martitzenean, hilaren 29an, San Pedro eguna denez, meza egingo dute ermitan.

Aloña Mendik urteko futbol jokalaria onenak saritu zituen

Aloña Mendiko futbol sailak urteko batzarra egin zuen hilaren 18an, eta denboraldiko jokalaria onenak saritu zituen. Iker Olalde, Mikel Ibabe, Roberto Idigoras, Eldin Zivojevic, Aitziber Iglesias, Aimar Lizarra, Jon Igartza, Mikel Ugarte, Ane Sanz, Iñigo Igartua, Mikel Kalboetxeaga, Garazi Billar, Oihana Rodriguez eta Kevin Martin izan dira jokalaria onenak.



ANTTON GARMENDIA

MUSIKA

Ganbara Gazteren kontzertu berezia

M.B. > OÑATI

Ganbara Gazte taldeak ikasurteko azken kontzertua egingo du bihar, 22:30ean. Hain zuen ere, *Donibaneke gaua: musika eta magia bat eginda* delako emanaldia egingo dute. Aitor Biainek zuzentzen duen taldearen kontzertua berezia izango da, unibertsitateko klaustroan egingo dutelako. Entzuleek klaustroko edozein lekutatik jarraitu ahalko dute emanaldia. "Udako solstizioa hasi dugu, eta kontzertu berezia egin gura genuen. Iaz, Ganbarako nagusiekin egin genuen eta oso gustura geratu ginen", esan digu taldeko zuzendari Aitor Biainek.

SARRERA GONBIDAPENAREKIN

Kontzerturako sarrera doan da, baina gonbidapena ezinbestekoa da. Horiek kultura etxean jaso daitezke.

Erdi Aroko musika eta euskal folkloreari eta mitologikori buruzko kantuak eskainiko dituzte.

> DEIALDIA

Elkartasun afaria egingo dute gaur Bidaurretan

Parrokiako Misio Taldeak elkartasun afaria antolatu du gaurko. Bidaurretako fraideen etxean bilduko dira, 20:30ean. Menua izango da letxuga entsalada eta patata tortilla. Afarirako sarrera doanekoa izango da. Ondoren, hitzaldia egingo dute hainbat misiolarik. Mari Karmen Markuleta eta Maria Luisa Ugarte mesedetako moja oñatiarrek, Yago Abeledo abadeak eta Leire Atxega Donostiako Elizbarrutiko misio ordezkaritzako arduradunak parte hartuko dute. Euren proiektuen berri emango dute.

ZELAIA
ONATI
www.zelaia.net

40
urte
elkarrekin
1970-2010



Euskadi etorbidea 3 - Oñati
943 71 89 49 - 943 78 36 99

**Erreforma integralak**

gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko

Berezao auzoa - Oñati
943 78 20 08

LANAK > E PLANA

Lausittako etxe txikietako lanak oraindik ez dituzte hasi, grebagatik

Saneamendu lanak dira egitekoak Lausittan eta eraikuntzako langileen grebak atzeratu egin ditu

Bolinagara doan bidea konpontzen dabilta eta zabalik egongo da uztail bukaerarako

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Madrilgo Gobernuak emandako E Planaren dirulaguntzarekin hainbat lan egitea erabaki zuen Udalak; garrantzitsuenak bi: Lausitta kaleko etxe txikietako saneamendu lanak egin eta Bolinagara doan bidea konpondu. Dagoneko hasita egon behar zuten biek, baina Lausitta kalekoak oraindik gelditu daude eraikuntzako langileak azken asteotan egiten dabiltzan grebaren ondorioz. "Astelehen eta martitzenean bakarrik egiten dute lan eta gero greba, eta lan bat hasteko eragozpen handia da hori", azaldu dute Udal Hirigintza arduradunek.

UR HODI ZIKINAK BIDERATZEA

Galartza auzora bidean dauden Lausitta kaleko etxe txikietako azpiegiturak berritzea da asmoa. Ur zikinen hodiak bideratu behar dituzte lehenengo -11. atartetik 17.era-. Orain errekarara doaz zuzenean hodi horiek, eta errepidearen beste aldean dagoen zaharren



Bolinagako bidean langileak, martitzen eguerdian.

M.A.



Urkulun egiten dabiltzan bidegorriaren lanak gelditu, eguaztenean.

M.A.

egoitzako kolektorearekin elkartuko dituzte. Horretarako, errepidea moztu egin behar dute, eta "behin hasitakoan lehenbailehen bukatzea" komeni zaiela diote Hirigintzako arduradunek.

Lausittako lanek 223.342 euroko kostua daukate eta Erga eraikuntza enpresak egingo ditu. Udal arduradunek ez dakite noiz hasiko dituzten.

BOLINAGAKO BIDEA AUERRERA

Bolinagako baserrietara doan bidearen lanak, osterara, hasita daude. Galdiano enpresa dabil egiten eta orain dela aste bi hasi zituzten. Bideari eusgarria jartzan dabilta, lurraz ez daitezen behera etorri berriro. Bidea itxita dago orain eta Bolinagako bizilagunak Areantza auzotik bueltan -Mitarte Garai baserri albo-

tik- egiten dituzte joan-etorriak.

Martxa onean eta ezusteko barik doazela aurrera jakinarazi dute Hirigintzako arduradunek: "Bi hilabeteko lanak dira eta ondo bidean uztail bukaerarako zabalik izan beharko litzateke bidea; baina ez dakigu, hauei ere eragiten diete-eta grebak".

BIDEGORRIKO LANAK URKULUN

Bestalde, E Planarekin zerikusirik ez duen lan batzuk egiten dabil Udal Urkulu urtegiren inguruan: bidegorriaren hirugarren fasea. Areantzako bidegurutzetik Goroeta auzora bitartean dagoen zatian bidegorria egiten dabilta, komunaren atzeko partetik, hain zuzen. Bidea izango den lautada egin dute orain arte Sasoi Eraikuntzak enpresako langileek; gero bete egingo dute lautada hori eta bukatzeko asfalto gorria bota gainean. "Abuztuko lehen astean erabiltzeko moduan izango zela uste genuen, baina hau ere jakin ez", diote Hirigintzako kideek.

> AISIALDIA

Euskara elkarteek antolatutako udalekueetan lekua

Txatxilipurdi, Jardun eta Loramendi euskara elkarteek elkarrekin antolatutako udalekueetan oraindik lekua daukate. 10 eta 12 urte bitarteko gaztetxoendako daude plaza libreak. Uztailearen 1etik 8ra bitartean, Geta-riako Askizu auzora joango dira horiek. Izena eman gura dutenek edo argibideak eskatu Loramendi Elkartera jo dezatela (685 75 67 29).

> UDALA

Udako ordutegia daukate udaletxean eta udal zerbitzuetan

Joan den astea ezkerro udako ordutegiarekin egiten dute lan bai udaletxean, bai udalekueetatik kanpo dauden udal zerbitzuetan: Gizarte Zerbitzuak, Hirigintza Saila, Kirol Zerbitzuak eta Kultura Saila. Hona guztien ordutegia: 08:00-14:00. Irailaren erdira arte egingo dute lan, goizez. Zainduz gimnasioak eta Arkupeak, oraingoz, ohiko ordutegia dute.

> LIBURUTEGIA

Goizez bakarrik dago zabalik eguaztenetik egubakoitzera

Udal Liburutegiak ere udako ordutegia dauka joan den astea ezkerro. Hona: astelehen eta martitzenean goizez eta arratsaldean zabalik (10:00-13:00 eta 17:00-20:00); eta eguazten, eguen eta egubakoitzetan goizez bakarrik (10:00-14:00). Ordutegi horrekin egingo dute lan irailaren 10a arte.

Bestalde, abuztuko bi astetan, 9tik 20ra, oporrak hartuko dituzte eta itxita egongo da.

INGURUMENA > ZUHAITZA

Urats Gain osteko pinua bota egin dute jausi egin zitekeelako

Ezezagun batzuek ia erdiraino moztu zioten enborra eta jausteko arrisku handia zeukan

M.A. > ARETXABALETA

Zaharren egoitza izandako Urats Gain eraikinaren atzeko partean zegoen pinua bota egin behar izan zuten lorezainek joan den egubakoitzean, udal ordezkariak aginduta. Izan ere, enborra moztuta zeukan zuhaitz horrek ia erdiraino eta jausteko arrisku handia zeukala ikusi zuten.

20 METRO INGURUKOA

Hogei bat metroko garaiera zuen pinuak eta oso dotorea zen. Deba ibaiaren ertzean zegoen landatuta, Urats Gainen lorategian: "Ez dakit zenbat urte izango zituen, baina asko bai; 50etik gora zituela esatera ausartuko nintzateke", jakinarazi zuen Joxe Anjel Antxiak, Ingurumen zinegotziak.

Pinu horren enborra moztzen hasita zeudela konturatuta zegoen orain dela egun batzuk: "Baina egun batetik bestera ia erdiraino moztuta agertu zen", dio zinegotziak. Hala, pena handiarekin, baina botatzeko agindu zien Makai enpresako lorezainei. Garabi txiki batekin igota moztu zuten motozerrarekin.

Beste zuhaitz handi bat geratu da lorategi horretan eta udal arduradunak beldur dira antzeko zerbait ez ote zaion gertatuko.



Makaiko lorezainak pinua moztzen joan zen egubakoitzean.

M.A.

ENPLEGUA > LANGABEAK

157 lagunek eman zuten izena peoi postueta

Peoi bi eta ofizial bat dagoeneko hasita daude lanean; beste hirurak abuztuaren 2an hasiko dira eta batez ere mantentze-lanak egingo dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Sei lanpostutarako dei egin zuen orain dela aste batzuk Udaleko Enplegu Sailak, INEMen bitartez, eta dagoeneko hartu dituzte lagile horiek. Peoi bi eta ofizial bat joan den astean hasi ziren lanean eta gainerako hirurak abuztuan hasiko dira.

BI URTE LAN BARIK
Langabeendako ziren sei lanpostu horiek. Peoi posturako 157 lagunek eman zuten izena, eta ofizial izateko 64k. Udalak, baina, aretxabaletarra izatea jarri zuen lehen-tasunen artean eta horien curriculumak bakarrik begiratu ditu hautaketa egiteko. Postuetara aurkeztutako langabeen profilaren berri eman digu Argiñe Larrea Enplegu Garapen teknikariak: "Batez ere gizonezkoak dira aurkeztutakoak, 40 eta 50 urte artekoak, eta urtebete eta bi urte artean daramatzate langabezian. Oinarrizko ikasketak dituzte eta asko familia-buruak dira, gaine-

ra". Larrearen esanetan, horietako asko Fagorren ibili dira lanean hainbat urtetan eta krisiarekin lan barik geratutakoak dira. Jardun osoz egingo dute lan hiru hilabeteen eta bi zeregin izango dituzte: batetik, kale bazterrak egokitzea: ur saneamendu sareen mantentze-lanak; espaloi, lorategi eta gainerako gune publikoen txukuntze lanak; ataripeen garbiketak...; eta bestetik, landa eremuak zaindu eta mantentzea: Udalaren bide eta landak berres-

kuratu, txukundu eta zaindu; landa inguruetako eta baserrietarako hodi eta arekak garbitu...

LEHEN LANPOSTUAK
Udalak aurten abian jarritako Enplegu Planak bideratutako lehen lanpostuak dira, baina gehiago ere sortu gura dituzte. Horretarako Enplegu Garapen teknikariak izango du herriko errekurtsuak aztertu eta jarduerak ekonomiko berriak identifikatzeko ardura.

ESANAK

"Aurkeztutako gehienak gizonak dira, 40 eta 50 urte artekoak, oinarrizko ikasketekin, eta asko familia-buruak"

Argiñe Larrea > Enplegu teknikaria

DATUA

2 URTE

Lanpostuetara aurkezteko baldintza izan da langabea izatea. Aurkeztutako gehienek urtebete eta bi urte artean daramatzate lan kontratu barik.



Dantza ekitaldia egiten Jaiki elkarteko kideak, plazan. GOIENKARIA

DANTZA > JAIKI ELKARTEA

Ikasturtea agurtzeko ekitaldia dute eguaztenean

Arkupen hasiko dute, eta kalean jarraitu; dantza eta musika bateratuko dituzte ikuskizunean

M.A. > ARETXABALETA
Jaiki elkarteak ikasturte bukarako ekitaldia egingo du datorren eguaztenean, hilak 30. Arkupe kultura etxean emango diote hasiera ikuskizunari (19:30) eta kalean izango du jarraipena. Musika eta dantzak bateratzeko asmoa daukate ekitaldi horretan, eta, bide batez, ikasturtean landutakoaren berri emango diete herritarrei.

IKASTARO ASKO
Dantza, musika, gorputz espresioa eta beste hainbat arlo lantzen dituzte Jaiki elkarteko kideek. Hainbat ikastaro antolatu dituzte bukatzera doan ikasturtean, tartean kontakt-inprobisazioa, dantza afroamerikarrak eta flamenkoa. Eguazteneko ekitaldian ikastaro horietan ikasitakoaren berri emango dute kalean.



MIRARI ALTUBE

Txikienek ere tantaia gora

Udako solstizioari ongietorria eman eta San Juan bezpera ospatu zuten Pausoka Haur Eskolan eguaztenean. Surik ez zuten egin, baina tantaia jaso bai; zelan, gainera! Tantaiaren albo bietan jarrita zeuden sokei tiraka jaso zuten, eta, hasieran alde batera eta bestera dantzan ibili bazen ere, laster zegoen tente bere lekuan. San Juani kantuan egin zioten gero eta urte ona izan dadin eskatu: *Sorginak eta lapurrak erre, erre; artuak eta garixak, gorde, gorde.* Trikiti doinuak lagun, gazta mokadutxoak janda bukatu zuten ospakizuna herriko ume txikienek gurasoekin batera.

KIROLA > FUTBOLA

I. futbol campusa egingo dute uztailean eskola futboleko dabilen neska-mutikoekin

Lau egun emango dituzte Galartzako aterpetxean eta entrenamendu saioak ibarran izango dira

M.A. > ARETXABALETA
Debagoieneko neska-mutikoei zabalik dagoen I. futbol campusa antolatu dute gurean uztaile-rako. Galartza auzoan dagoen aterpetxean emango dituzte hiru gau, eta entrenamendu saioak egitera Ibarra futbol zelaira joango dira.

BI TXANDA
1999 eta 2001. urte bitartean jaiotako gaztetxoendako izango da futbol campusa; hau da, futbol eskoletan dabilen ibarreko neska-mutikoendako. Eta bi txanda egingo dituzte adinaren arabera: uztailaren 19tik 22ra bitartean, 2000n eta 2001ean jaiotakoak; eta uztailaren 26tik 29ra, 1999an eta 2000n jaiotakoak –txanda bakoitzean gehienez 40 gazte-. Izena emateko edo argibide gehiago eskatzeko honako telefono zenbakira deitu behar da: 649 82 20 70. Egonaldiaren kostua 130 euro



Futbol eskolako neska-mutikoak denboraldi hasieran. M.A.

da eta izenemate epea uztailaren 15ean bukatuko da.

FUTBOLA BAINO GEHIAGO
Lau egun horietan futbolaren gaineko kontuak landuko dituzte Galartzako aterpetxean dauden bitartean, eta entrenamendu saioak Ibarra futbol zelaietan egin. Aretxabaleta Kirol Elkarteko kirol zuzendari Igor Arenatzak

izango du campusaren ardura, eta, haren esanetan, futbolaz harago doa kontua: "Entrenamendu saioak egingo ditugu, baina askoz gehiago izango da: taldeko lana sendotu, gaztetxoekin balioak landu... Eta hori guztia ingurumenarekin eta euskararekin uztartuko dugu". Entrenamendu saioak UDako entrenatzaileek bideratuko dituzte.

JAIK > ASTEBURUKO EKIMENAK

Motorrak berotzen hasteko ordua iritsi da

1/18 Rally Game txapelketa, Kontzejupe pilota txapelketa eta gimnasia erritmiko eta funk erakusketa daude

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Hiru egun baino ez dira gertatzen jaiak has daitezen, eta motorrak berotzen joateko hainbat ekimen izango dira egunotan herrian. Kirolarekin lotuta daude horiek. Bihar, zapatua, irratik kontrol bidezko autoen Euskadiko 1/18 Rally Game txapelketa egongo da kiroldegian. Goizeko eta eguerdiko entrenamendu libreen ondotik,

18:00etan sailkapen probak egingo dituzte. Horrez gain, 10:30ean haurren V. Kontzejupe pilota txapelketa jokatuko dute; eta 16:00etan nagusien norgehiagokak hasiko dira.

Domekan, 10:00etan, Rally Game txapelketaren lasterketa izango da eta ordubete geroago, Eskoriatza kirol elkarteke pilota eskolaren 2. torneoaren finala egingo dute. Arratsaldean, berriz, Eskoriatzako gimnasia erritmiko eta funk taldeen erakusketa daude. 19:00etan izango dira horiek.

45.859 EURO

Bestalde, Udaletik jakinarazi dute aurtengo jaiak 45.859 euro kostatzen direla, eta diru sarreretan 5.110 euro batzea aurreikusi dutela.



GOIENKARIA

Jolasak, sua eta tantaia, San Juan bezperan

San Juan bezpera zela-eta, Eskoriatzan ere urteroko hainbat ospakizun egin zituzten eguaztenean. Etxeko txikienak Herriko Plazan batu ziren arratsaldean txorimaloaren bila joateko, eta horrekin bukatutakoan, su japoniarrak izan zituzten. 1993an jaiotakoak, bitartean, tantaia plazara ekartzeaz arduratu ziren. Gauean, urte horretako kintoek San Juan sua isiotu zuten, eta horrek indarra galdu zuenean, su gainetik salto egiteko aukera egon zen. Azkenik, tantaia jaso zuten garabiarekin.

oharrak

UDALA

> Udal bulegoak itxita hildaren 30ean eta uztailaren 1ean

Jaietako bigarren eta hirugarren egunak ere jaiegun izendatu ditu Udalak; hau da, ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean udal bulegoak itxita egongo dira. Hori dela eta, egun horietan Udalare-

kin loturiko jardueretarako edozein epe-amaiera egokituz gero, hurrengo lanegunera pasako da.

PROTESTA

> Lanuzteak eta elkarretaratzea, martitzeneko greba dela-eta

Udalak martitzenerako hainbat sindikatuk deitu duten greba

orokorrarekin bat egin du, eta egun horretarako aurreikusita dauden mobilizazioetan parte hartzeko dei egiten du. Bi lanuzte egingo dira: 10:00etatik 12:00etara eta 18:30etik 19:30era. Arratsaldean, gainera, elkarretaratzea izango da Herriko Plazan, 18:30ean.



Zenbaki Aholkulariak



EMPRESA
CERTIFICADA
ISO 9001:2000



• Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• Laborala:

- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• Fiskala:

- Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• Kontabilitadea:

- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETAK

zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68

JAIK > GASTRONOMIA

Gisatu lehiaketa egingo dute jaietan

Uztailaren 9ra arte eman daiteke izena lehiaketan; horretarako, udaletxera deitu edo 'kultura@antzuola.net' helbidera idatzi behar da

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Jaiak eta gastronomia. Zer izango lirakeke jaiak bazkari edo afaririk gabe? Bada, aurtengo jaietan ere gastronomia kontuek tokia izango dute Antzuolan.

Hirugarren urtez jarraian gastronomia lehiaketa antolatu du Udalak. Aurten, parte-hartzaileek gisatua prestatu behar dute.

BI EDO HIRU LAGUNEKO TALDEAK

Antzuolan jaio edo bizi direnek parte hartu ahal dute gisatu lehiaketan. Antzuolako gastronomia elkarteek, auzotarrek, koadri-lek, herriko edozein elkartek zein horretarako osatutako taldeek eman dezakete izena lehiaketan. Taldeak bi edo hiru lagunekoak izango dira. Gaztetxe aurrean izango da lehiaketa.

DASTATZEA

09:30erako egon beharko dute parte-hartzaileek gaztetxe aurreko arkupeetan. Hiru ordu izango dituzte sukaldariak gisatua prestatzeko: 12:30erako bukatuta egon beharko du. Ondoren, sari banaketa hasiko da eta 13:00etan dastatzearen ordua izango da.

Jakiak, sua, amantalak eta sariak Udalak ipiniko ditu. Bestalde, parte-hartzaileek eroan beharko dituzte: zartagina, kazola, sardexka, labana... Hau da, behar izango dituzten ontzi guztiak. Lanerako suak eta mahaiaik zozketa bidez erabakiko dira

lehiaketa hasi baino lehen. Jana lehiaketan bertan prestatu beharko da, ezingo da etxetik gertatuta eroan.

IZENEMATEA

Lehiaketan izena eman nahi duenak uztailaren 9ra arte (egubakoitza) izango du aukera. Horretarako, udaletxera deitu beharko da -943 76 62 46- edo mezu bat idatzi ondoko helbidera: *kultura@antzuola.net*.

Lehiaketara aurkezten direnek oinarri horiek eta epaimahaiak hartutako erabakiak onartu beharko dituzte.



Iazko lehiaketa.

GOIENKARIA

Urbiako fondan bazkaria egin zuten 48ko eta 49ko kintoek

Urtero egiten dute kinto bazkaria, baina aurtengoa berezia izan da. Urbiako fondan egin zuten zapatuan 1948ko eta 1949ko kintoek bazkaria. Azaldu dute oso ondo pasa zutela; bazkari ona eta umoretsua izan zuten.

Kintoek eskerrak eman nahi dizkiete fondako lagunei, bereziki Ruperrri, egin zien harrera onagatik.



JOSE LUIS ARREGI

oharrak

IZENEMATEA

> **Erretiratuek urteroko bazkaria egingo dute uztailaren 11n**

Bazkaria betiko tokian izango da. Izena emateko elkartera joan behar da: ekainaren 29an eta 30ean, 16:00etatik 18:00etara. Bost euro ordaindu behar dira.

IRTEERA

> **Mendi irteera uztailaren 10ean eta 11n Pirinioetara**

Izena emateko azken eguna ekainaren 30a izango da, 07:00etatik 08:00etara Olaran etxean; eta aurretik, 635 205 841 telefonora deituta. Bazkideek 40 euro eta ez bazkideek 46 euro ordaindu beharko dituzte.

JAIK

De Bote en Bote taldearen 'Argote' lana

A.E. > ANTZUOLA

Domekan izango da, Kalebarrengo jaien barruan. De Bote en Bote taldeak *Argote* lana eskainiko du. 19:00etan da hitzordua.

Zirkua, antzerkia, musika, publikoaren parte-hartzea, umorea eta jolasa nahastuko dituzte Gorka Pereira, Luciano Mezzotero eta Aritza Rodriguez artistek. Ordubeteko ikuskizuna izango da.

BIHAR, HASIERA

Kalebarrengo jaiak bihar hasiko dituzte, jinkanarekin -12:00etan-. 20:00etan arbola jasotzea egingo dute eta 00:00etan sagar-dantza. Domekan dantza saioa izango da, 12:30ean.

KULTURA

Eskulan ikastaroko lanak ikusgai

A.E. > ANTZUOLA

Bihar eta etzi 18:30etik 20:30era egongo dira lanak ikusgai Olaranen. Eskulan ikastaroan parte hartu duten 16 ikasleen lanak izango dira. Edurne Uribealzo irakasleak azaldu du batez ere koadriak izango direla ikusgai, baina, horiez gain, margotutako kaxak eta kristalezko lanak ere egongo dira.

IKASTURTE AMAIERA

Erakusketarekin, aurtengo ikasturtea amaitutzat emango dute. Urrian ekingo diote ikastaroari berriro. Aste bukaera honetaz gain, datorren aste bukaeran ere -uztailak 3 eta 4- egongo dira eskulanak ikusgai Olaranen.

KIROLA > GIMNASIOA

Patinaje ikastaroa emango dute uztailean zehar

Gimnasioan eman daiteke ikastaroetarako izena

A.E. > ANTZUOLA

Uda sasoiari begira hainbat berrikuntza eskainiko ditu gimnasioak; bi ikastaro berri jarriko dituzte abian datozen egunotan: alde batetik, helduei zuzendutako patinaje ikastaroa eskainiko dute uztailean; eta bestetik, gazteei zuzendutako spinninga.

PATINAJEA

Uztailaren 12an hasiko dute patinaje ikastaroa. Martitzen eta eguenetan izango dira eskolak, 19:30etik 21:00etara. Samuel izango da irakaslea, eta izena emateko ez da beharrezkoa aurretik esperientziarik izatea. Taldearen arabera antolatuko dituzte eskolak.

Gimnasioko arduradunek gaineratu dute norberak eraman beharko duela patinajerako beharrezkoa den materiala.

GAZTE SPINNINGA

Goizetan emango dituzte gazte spinning eskolak. 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaroa da; martitzen eta egue-

netan izango dira, 11:15ean. Ikastaroa hasiko da uztailaren 1ean. Gimnasioan bertan eman behar da izena.

Bestalde, orain arteko ikastaroetan hainbat aldaketa egin dituzte. Pilatesari dagokionez, martitzen eta eguenetako 17:30eko ikastaroa 18:30ean izango da aurrerantzean. Spinningean, aldiz, astelehen eta eguazteneko ikastaroak aurrerantzean martitzen eta eguenetan izango dira, 19:30ean.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta
(zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

Jon Iñaki Isazelaia > Oletako Kontzejuko idazkaria

"Ahalik eta jende gehien batzea nahi dugu domekan, Obena baserrikoei babesa emateko"

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Iazko udazken-negua ezker Oletako Kontzejuko idazkaria da Jon Iñaki Isazelaia irakaslea. 120 lagun inguru bizi dira Oletan eta guztiek bat egin dute apirilaren 24an errezaren Obena baserriaren aldeko jaialdia antolatzeko. Domekan ahalik eta jende gehien batzea da haien asmoa.

Dirua batzea eta, aldi berean, Obena baserrikoei elkartasuna adieraztea dira jaialdiaren helburuak, ala?

Horrela da, bai. Bata bestea bezain garrantzitsuak dira guretzako. Era berean, auzotarrak batzeko baliagarria izango da jaialdia. Nahiko sakabanatuta bizi gara eta harremanak sendotzeko hitzordu aproposa da. Gertakizun tristeak izan da Obenako sutearena, baina denon artean aurrera egin dezakegula erakutsi nahi dugu. Obenakoak, une latz hauetan, pozik daude ikusketan auzotarrok ez garela eurekin ahaztu.

Zein da Obenaren bizi izan direnen egoera gaur?

Baserriaren teitlatua eta egitura gehiena egurrezkoa zen eta itzalezko indarra hartu zuen suak. Bi etxebizitza zituen baserriak eta alde biak bertan behe-erretorri ziren sutearen ondorioz. Baserria guztiz jausi zen eta, horren aurrean, Aramaioko Udalak eta Otxandiokoak akordio moduko bat egin zuten Obenakoak Otxandioko etxe baten hartze-



Jon Iñaki Isazelaia.

GOIATZ ARANA

"Obena baserria berriz jasotzeko eta hara itzultzeko asmoa du familiak"

ko. Orain, berriz, Otxandioko beste etxe baten dira, alokairuan. Lau belaunalditako sei lagun dira elkarrekin bizi izaten, tartean 90 urte inguruko amama eta 11 hila-beteko haur bat.

Aseguratuta zegoen baserria?

Zoritxarrez, ez. Kalteak baloratzen ari dira oraindik, eta, ahal den neurrian, euren bizimodua berregiten. Kolpe gogorra izan da guztiontzat. Izan ere, baserri ondotik pasatzen garen bakoitzean sarraski hura ikustea mingarria da oso. Dena dela, baserria berriz jasotzeko eta hara itzultzeko asmoa du familiak. Ahal den neurrian, haiei laguntzea da asmoa.

Domekako jaialdia joateko gonbita egin beharrik ez dago.

Ahalik eta jende gehien batzea da helburua. Aldez aurretik guztien kolaborazioa eskertu beharrean gaude. Jon Lapatzaran segalariak laguntza handia eman digu; ortua dauka Obenatik gertu eta gertatutakoarekin oso sensibilizatuta zegoen. Azken baten, Oletan denok ezagutzen dugu elkar... Ea jaialdi borobila izaten den domekakoa.

Herri kirolak eta jai giroa domekan Oletan

Oletako Kontzejukoak, auzotarrek eta Aramaioko Udalak antolatu dute domekako jaialdia. Eguerdiko 12:00etan hasita, herri kirolak eta Iparraldeko jokoak izango dira, ingude altxatzea, trontzalariak, harri jasotzaileak eta segalariak tartean. Sarrerarik ez dute ipiniko, baina bai kutxa batzuk jendeak borondatea emateko. Pare bat txosna ere izango dira Oletan eta arratsaldean Xabi eta Unairekin erromeria, 18:00etan. Gogoratu, bestalde, Obenaren alde bi kontu korrante ireki dituztela, Euskadiko Kutxan bata (23 1610007164) eta BBKn bestea (50 9110593759).

LEINTZ GATZAGA > UDALA

Erroldatze agiriak, Internet bidez

Hainbat zerbitzu telematikoko eskaintzen ditu Udalak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Udalak zerbitzu telematikokoak eskaintzen dizkie herri-tarrei, beste udal batzuek legez;

hau da, Udalarekin Internet bidez harremanetan jartzeko aukera. Zerbitzu hori poliki-poliki dabil-tza jartzen abian eta oraindik

eskaera guztiak ezin dira bideratu, baina bai batzuk. Udaleko langileek uste dute zerbitzu benetan eroso dela herritarrendako eta oraindik askok ez daukatela horren berri.

ERROLDATZE AGIRIAK

Udalaren webgunearen bitartez www.leintzgatzaga.com gatzagarrek erroldatze agiriak har ditzakete eta zergak kontsultatu. Hala, ez daukate udaletxera eske joan beharrik eta etxetik edo lanlekutik inprimatu ahal izango

JAIK > SANMARTINAK

Udalak kaleratu du San Martin jaietako egitaraua

E.M. > ARAMAIO


Aste honetan bertan banatu dute etxez etxe San Martin jaietako egitaraua. Jakingo duzue-nez, uztailaren 2tik 5era eta 9tik 10era bitartean ospatuko dira jaiak. 32.000 euro inguruko aurrekontuarekin osatu du Udalak egitaraua, herriko hainbat talderen parte hartzearekin.

Jaiak hilaren 2an hasiko dira, 19:00etan, txupinazoarekin. Gose, Anger eta Kañeria 13 musika taldeen kontzertua izango da eta, era berean, Ostolatza-Narbaitza bikotearekin erromeria.

Zapatuan, uztailaren 2an, besteak beste, tortilla lehiaketa, umeendako jolasak eta Txirritolinpiadak; eta domekan dantzak, herri kirolak eta jolasparkea.

ARRANTZA TXAPELKETA BIHAR

Jaien egitarauaren barruan, bihar, zapatua, arrantza lehiaketa jokatu da goizean zehar Aramaion.



Jaietako kartela.



GOIENKARIA

Patinekin, Landetan zehar

Agustin Oianguren Landetako patin zeharkaldian (220 km.) lehiatu da aurtan. Bi etapatan banatuta, bigarrenengo giro eskasa izan zuten. Eroriko bat ere izan zuen Agustinek, baina ondoriorik gabe. Pozik itzuli zen Landetako probatik. Oraingo asteburuan Le Mansko 24 orduko proban izango da, Hanka Labanka taldeko lagunekin batera.

> UDALA

Zabor bilketa tasa ordaintzeko epea zabalik dago

Onartuta dago lehenengo sei hilabeteko zaborraren bilketa, garraio eta tratamendu zerbitzuaren tasaren errolda eta ordaintzeko epea zabalik. Ordainagiria helbideratu barik dutenek uztailaren 31 bitartean pasatu beharko dute ordaintzera udaletxeko zerga-bilketa bulegotik.

OSPAKIZUNA > SAN JUAN BEZPERA

Suaren gainerik salto egin dute aurten askok

Trikiti doinuekin lagunduta erre zen San Juan bezperako sua; sorpresa Maala guraso elkartearen suziriak izan ziren

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Guztiz ilundu aurretik, 22:00 alde-
ra, piztu zuten San Juan sua
kiroldegi ondoko berdegunean.
Egurak, kartoiak eta paperak
biltzen aritu direnek lan txuku-
na egin dute aurten, eta pila ede-
rra zegoen sutan erretzeko prest.
Eguarbitzako anai-arreben triki-
ti doinuekin lagunduta, sua han-
di nola egiten zen ikusi genuen,
eta umeak gainerik salto egitera
ere animatu ziren. Jakina, alda-
menean egindako San Juan sua-
ren bertsio txikiagoaren gaine-
tik egin zuten salto.

SUZIRI ETA GUZTI AURTEN

Maala guraso elkartearen esku-
tik *Ametsen fabrika* ipuin antzez-
tua eta ogitartekoak izan zituz-
ten herriko neska-mutikoek sua
piztu aurretik. Azken sorpresa
bat ere bazuten gordeta guraso
elkarteko kideek; suziriak, hain
zuzen ere. Berezko magia du San
Juan bezperak, baina suziriak,
Elgetan, ez dira egunero ikusten!
Orain, Ferixa Nagusiko jaiak
prestatzea tokatzen da.



Ume bat, San Juan bezperan, suaren gainerik salto egiten.

L.Z.



Arratsaldea hasteko, *Ametsen fabrika* ikusi zuten umeek Bolatokian.

L.Z.

> JAIK

Euro baten salgai daude dagoeneko Ferixa Nagusiko jaien aldeko zapi gorriak

Sei egun besterik ez da gelditzen 2010eko Ferixa Nagusiko jaiak hasiera emateko. Udaleko Jai batzordeak gertu du egitaraua. GOIENKARIA honekin batera iritsiko zaizuen gehigarri berezian dituzue ekitaldien zerrenda eta bestelako hainbat xehetasun.

Jai batzordea, bestalde, hasi da dagoeneko aurtengo jaien aldeko zapi gorrien salmentarekin. Ohiko taberna eta saltokietan aurkituko dituzue salgai euro baten truke.

> IKUSKIZUNA

Elgetako musika ikasleek domekan, hilak 27, egingo dute ikasturte amaierako emanaldia

Espaloian izango da, 12:30ean. 24 ikasle hartuko dute parte. Pianoa, gitarra eta tronpa joko dute. Gainera, ikasle batek dantza egingo du eta aurre hezkuntzako 1. mailakoak ere izango dira ekitaldian. Ikasleak desiratzen egoten dira emanaldiko eguna hel-
tzeko: alde batetik, jendearen aurrean ikasturtean ikasi dutena erakusteko, eta beste alde batetik, oporren hasiera delako.

> LANA

Peoia behar dute udaletxean eta hilaren 28an, astelehena, amaitzen da izena emateko epea

Belarra moztu, garbiketa lanak egin, kanpoko altzari berria ipi-
ni... horrelako lanak egiteko peoia behar du Udalak eta jardun osoarekin lan egiteko sei hilabeteko kontratua eskaintzen du. Eskerak udaletxean egin daitezke hilaren 28ko 10:00ak baino lehen. Elgetan erroldatuta egotea, erremintak erabiltzen jakitea eta langabezia prestaziorik ez jasotzea dira bete beharrekoak.

> ZIKLOTURISMOA

Elgetak ordezkari izan zuen zapatuan Sabiñanigon jokaturako bi lasterketetan

Elgetatik joandako bi lagunek amaitu dute aurten Quebrantahue-
sos proba, eta bostek Treparriscos. Quebrantahuesos Manuel Mon-
tielek (09:09:53) eta Anartz Agirrek (10:13:58) egin dute. Treparriscos, berriz, Iban Retolatzak (04:02:09), Alexander Cristobalek (04:03:24), Ainara Iribarrek (04:03:26), Haritz Gallastegik (04:07:50), eta Onintza Egañak (04:07:50).

BOLATOKI
taberna

ONDO PASAU JAIXAK!

943 76 82 84
Artekale 4
ELGETA

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!



MAKINA ERREMENTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta

SASKIBALOIA > HIRUKO TXAPELKETA BERGARAN

Saskibaloiz betetako asteburua, gaur hasita

Gazte eta senior mailetako taldeek zapatuan dute hitzordua; gaztetxoek, berriz, domekan

XABIER URTZELAI > BERGARA

Hirugarren urtez asteburuan egingo dute Bergarako hiruko saskibaloi txapelketa, eta, urteek aurrera egin ahala, hitzordua geroago eta gehiago biribiltzen dabilta. Hala, San Martin plazako *kantxan* bihar arte ez da saskibaloi partidurik egongo, baina kirol jaia gaur bertan hasiko dute, 19:00etan, txosna irekiera-ekin.

BIHAR, NAGUSIAK

Bihar, berriz, saskibaloi kantxa bilakatuko da San Martin plaza. Nagusien mailako partiduak jokatu dituzte, 16:00etan hasita; gazteak, Debagoieneko seniorrak eta elite mailako seniorrak

ibiliko dira zein baino zein gehiago. Ondoren, herri afaria egingo dute. Hala, afarirako tiketak Deportivo, Agorrosin eta Avenida tabernetan daude salgai. Afalostean, berriz, arratsaldean izerdia bota ostean jokatzeko ibili direnek ez dute erretiratzeko presarik izango, disko jartzailea egongo da-eta, 23:00etan hasita.

DOMEKAN, GAZTETXOAK

Gaztetxoak, ordurako, oheratuta izango dira, domeka goizean euren txanda izango da-eta. 10:00etan hasita jokatu dute kadeteek, alebinek eta infantilek, eta hiruko jaurtiketen txapelketaren ostean, 13:30 inguruan gazteen sari banaketa egingo dute.



San Martin plazan, iaz, hiruko txapelketako partiduan.

GOIENKARIA

Saskibaloi jaiko egitaraua

25, egubakoitza

19:00 Txosna irekiera, eta 23:00etan disko gaua.

26, zapatua

10:30 Hastapen jardunaldiak Domingo Iralan.

11:00 Umeendako puzgarriak Munibe plazan

16:00 Hirunako saskibaloi txapelketa plazan, nagusiak.

20:00 Hiruko jaurtiketen txapelketa.

20:30 Finalak eta sari banaketa.

21:30 Herri afaria San Martin plazan (tiketak salgai).

23:00 Disko gaua.

27, domeka

10:00 Hiruko saskibaloi txapelketa, maila txikiak.

10:00 Umeendako puzgarriak Munibe plazan.

13:30 Finalak eta sari banaketa.

MENDIA > HIRU HANDIAK

Gaur, egubakoitza, gauerdian hasiko dute Hiru Handiak iraupen luzeko proba

Araian hasiko duten proban ibarreko mendizale askok hartuko dute esku, 100 kilometroko ibilbidea amaitzeko asmoz

X.U. > BERGARA

Debagoieneko hainbat mendizalerentzako gau luzea izango da gaurkoa, lerrook irakurtzen dituzuenarako Araia (Araba) bidean izango direlako, bi urtean behin egiten duten Hiru Handiak proban esku hartzeko gertu (100 km). Hala, gauerdian hasiko duten iraupen luzeko proban Aizkorri bidean egingo dituzte lehenengo kilometroak oinez –eta askok korrika.

Elgeako mendilerroa zeharkatu ostean Anbotora bidean harri-patuko ditu egunsentiak, eta zapatuan, arratsaldeko lehenengo orduan Otxandiotik bueltan ibiliko dira asko eta asko –azkarrenak, berriz, Gorbeiatik bueltan–. Hala, hortxe izango dute azkeneko erronka, probako hirugarren



2006ko edizioako erretratuan, Otxandion helmuga zeharkatzen.

ARTXIBOA

tontorrera igotzea, Gorbeia, eta handik bueltan, Otxandion zeharkatu dute helmuga.

TARTE BEREZIA GOITBN

Goiena Telebistak tarte berezia eskainiko dio iraupen luzeko lasterketa horri, eta asteleheneko

Harmailatik kirol saioan ibarreko ordezkarien jarraipena egingo dugu. Batendako baino gehiagorendako, gainera, proba hori uztailean egingo duten Ehun Miliak (167 km) ultramaratoi lasterketarako entrenamendua izango da.

> MENDIA

Garaierara egokitze prozesua bide onetik doala adierazi dute Naturgas Broad Peak-eko kideek

Bi egun atseden hartzen egon ostean, asteburuan 7.000 metrora pare bat egun igarotzen ahaleginduko dira Broad Peak espedizio-kideak, aste barruan azaldu duten moduan. Azaldu dute bide onetik doazela garaierara egokitze egin beharreko lanak.

> ATLETISMOA

Antxintxiketan atletismo taldeak antolatuta, Torreausoko 13. herri krosa izango da domekan

Domekan 11:00etan hasiko dute Torreausoko krosa (7,5 km). Oraindik badago izena aurrez emateko aukera (8 euro), www.antxintxiketan.com webgunean edo Zerokm dendan. Berantiarrek domekan ere eman ahal izango dute izena (12 euro)

> TRIATLOIA

Julen Kortabarria eta Iban Perez Gasteizen egingo duten Europako triatloi txapelketan izango dira

Bihar egingo dute, Gasteizen, Europako triatloi txapelketa, eta bertan izango dira ibarreko bi ordezkari, Julen Kortabarria eta Iban Perez. Igeriketako saioa Uribarriko urtegian egingo dute eta Gasteizko inguruetan korrikako eta bizikletako zirkuitua.

> DUATLOIA

Beñat Arnaitz aretxabaletarra hirugarren izan zen Tourmaletoko duatloian, zapatuan

Lasterketako lehen zatian zazpi kilometro egin zituzten korrika, eta Tourmalet bizikletan igo ostean La Mongie estazio inguruan beste sei kilometro egin zituzten korrika. Arnaitzek 1.48.34ko denbora egin zuen, lehenengoak baino minutu bat gehiago.

TXIRRINDULARITZA > FRANTZIAKO TOURRA

Iban Velascok debuta egingo du Frantziako Tourrean

Arrasatekoa da Tourrari begira Euskaltelek izango duen berritasun handienetako bat



Iban Velasco, Euskal Herriko Itzulian.

GOIENKARIA

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Euskaltel Euskadiko kirol zuzen-dari Igor Gonzalez de Galdeanok aste barruan eman du aditzera taldeko ze bederatzi ziklista izango diren Tourrean parte hartzen, eta Iban Velasco (Arrasate, 1980) da aukeratutakoetako bat. Arrasatekoa garaiz errekuuperatu da apirilean Fleche Wallonne lasterketan izandako erorikotik, eta

aste barruan Arrasate Irratian azaldu du ze asmorekin joango diren: "Tourrean Samuel Sanchezendako lan egitera goaz, eta

horrekin batera etaparen bat irabazteko egingo dugu lan. Ea ihesaldiren baten sartu eta etaparen baten aurrean ibil naitekeen".



KOLDO LAMIKIZ

Bergarako lagunek omenaldia egin zioten Pepe Morali, Quebrantan

Orain dela gutxi hil den Pepe Morali omenalditxoa egin nahi izan zioten Bergarako lagunek joan den zapatuan, Quebrantahuesos proban. Erretratuko lagunak Oscar Ortiz eta Jose Javier Zabaleta dira, Moralen omenez egindako kartelarekin: "1973, 74 eta 75. urte inguruan Lokatza ziklismo eskolan ibili ginenon entrenatzailea izan zen Morali, betiko entrenatzailea, eta omenalditxoa egin nahi izan genion".



GOIENKARIA

Gipuzkoako lau t'erdikoa, Moronendako

Zapatuan, Alegian, Gipuzkoako eskuz banakako lau t'erdiko pilota txapelketako finalak jokatu zituzten, eta alebin mailan AGT Arrasate Pilota Taldeko Markel Moronek jantzi zuen txapela. Moronek aurkari oso ona izan zuen, Alegiako Aratz Irazustabarrena. Argazkian, Moron, finalean ondoan animatzen izan zituen lagunekin.

> PILOTA

Buruz buruko txapeldun Irujo, domekan Arrasaten

Domekan, hilak 27, joan den domekan buruz buruko txapela irabazi zuen Juan Martinez de Irujo izango da Uarkapen.

Jaialdiko partidu nagusia eskuz binakakoa izango da, eta Irujok Titin III.aren kontra jokatuko du. Atzean, berriz, Merino eta Laskurain ibiliko dira lanean, jakinda ikuskizuna aurreko koadroetan egongo dela. Lehenago, baina, beste pilota partidu bat izango da, Cabrerizok eta Galartzak Ongairen eta Cenciloren kontra jokatuko dutena.

Jaialdia 17:00etan hasiko dute eta sarrerak 20 euro balioko du.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

EKAINEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



REALEKO GORRO ETA BUFANDA

Bidali KLUBA GORROA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



REALEKO MOTXILA

Bidali KLUBA MOTXILA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



MUNDUMIRAKO MATERIALA

Bidali KLUBA MUNDUMIRA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



UMEENTZAKO PUZZLEA

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA APIRILA-EKAINA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN



- Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
- Basetxeta Auzoa.
- Gautegez-Arteaga (Bizkaia)
- www.nekatur.net/txopebenta
- www.toprural.com

Maiatzean 20 urte beteko ditugu;
Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

www.danbaka.com**DANBAKA**))))

IV. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA **DEBAGOIENA** DURANGALDEA

PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debarrena edo Durangaldekua bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com

irailak

17izena
emateko
azken
eguna



> ENTZIERROEN MUSEOA

Juan Luis Bikuñaren laguntzaz egin da museoa Iruñean > 32



> 'GERNIKA'

Ikuskizun hori egingo du Edu Muruamendiaratzen Aukeran taldeak > 32



> OMENALDIA

Oñatiko Arzuaga anaia artisten ohorezko ekintzak antolatu dituzte > 33

Gau magikoa biziko dute gaur Bergarako Munibera doazenek

> 'PERFORMANCE'-A

Ramon Arantzabalek zuzendutako ikuskizuna egongo da, 22:30ean

> FINLANDIARA BIDAIA

Jean Sibelius musikari finlandiarra izan du kontuan arrasatearrak

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bergarako Munibe plazak Ramon Arantzabalek zuzendutako *Gau magikoa* Munibeko plazan izeneko *performance*-a hartuko du gaur, egubakoitza, gauean. Ordu erdi inguru iraungo duen ikuskizun artistiko horretan, musika, dantza, poesia eta pintura uztartuko ditu Arrasateko margolariak.

Arantzabalek jakinarazi digu orain dela sei urte egin zuela azken erakusketa Oñatin, eta orduan erabaki zuela hurrengo ekitaldiak "berezia" izan behar zuela: "Poliki-poliki jaiotzen joan da, elementu guztiak ezkontzen joan dira apurka. Proiektu pisutsua da eta orain dela urte eta erdi inguru forma hartzen joan zen. Proiektua muntatu zenean krisia gainean zegoen, eta, lagatzeko esaten zidaten arren, nik aurrera egitea erabaki nuen eta zailtasunei aurre egitea lortu dut. Ekimen sakona da, Euskal Herrian ez dut uste tamaina honetako *performance*-rik egin denik".

> ZISNEA ETA MUNIBEKO GIZONA

Arantzabal Jean Sibelius musikari finlandiarraren *Tuonelako zisnea* izeneko sinfonia izan du kontuan historia asmatzerakoan. Finlandian hiltorian dagoen sirena batekin hasiko da hori. Manex Alberdik antzeztutako zisneak haren samin kantua entzungo du eta laguntzera joango da. Sirenak esango dio bere azken egunak Muniben eman nahiko lituzkeela, eta horretarako, itsas portu bihurtu beharko luketela plaza. Ordainetan, handik aurora boreala ikusi ahal izango dutela.

Zisnea Andoni Etxebarriak antzeztutako Munibeko jauna-



Ramon Arantzabal, bere estudioan.

JON BEREZIBAR

rengana joango da, sirenaren mezua eroateko. Jean Sibelius musikariaren *Finlandia* izeneko piezaren akordeez egingo du aurkezpena. Jaunak, harrituta, Munibeko biztanleak bilduko ditu eta mezua irakurriko die. Eztabaida biziaren ostean, plaza itsas portu bihurtzea onartuko dute.

Munibeko jaunak akordioaren berri emango dio zisneari, eta hark esker dantza hunkigarri batez agurtuko du, eta Finlandiarantz jo. Jarraian, aurora borealaren agerpena izango da.

Ikuskizunaren bigarren zatian, ikusleei plazan sartzeko gonbita egingo zaie, bertatik

aurora boreala ikus dezaten, Sibeliusen 2. sinfoniaren konpasen artean.

> ARGIA ETA SOINUA

Margolanak ikuskizunaren zati garrantzitsua dira. Kolorez betetako lan abstraktuak eskegiko dira plaza inguratzen duten erai-

"Euskal Herrian ez dut uste tamaina honetako 'performance'-rik egin denik"

"Kasualitatez topatu nuen Munibe, hango banku baten jarrita nengoela"

DATUA

18

MARGOLAN

Etxe-aurreak izango dira 18 lanen erakusketa leku. Munibeko balkoi bakoitzean metro bateko luzera duen lan bat jarriko da; Moia etxean, bi metroko bi; eta beste lau margolan erraldoi plaza barrena.

kinetan; Munibeko balkoi bakoitzean metro bateko luzera duen lan bat jarriko da; Moia etxean, bi metroko bi; ikastola parean, 8x2ko beste lan bat; Seminariotik zintzilik 6x2ko bat; eta Munibe eta Seminario arteko txokoan, 3x3koa. Arantzabalen esanetan, "azken hori izango da jaialdiaren protagonista, zisneak Munibeko gizonari eroango dion sirenaren mezua irudikatuko du-eta". Lurrean, berriz, bederatzi metro koa-drokoa izango da. Horiek irudikatzean, argiarekin eta musikarekin jokatu du Arantzabalek, eta "erabateko" ikuskizuna sortu.

> MUSIRAKA TALDEA

Dantzak ere funtsezkoak izango dira. Osintxuko Musiraka dantza taldeko kideek parte hartuko dute, emanaldi horretarako espresuki Amaia Agirrek sortutako koreografiarekin.

Azkenik, kokalekuaz ere hitz egin digu arrasatearrak: "Ibilita nago eta ez dut ezagutzen Euskal Herri osoan beste toki aproposagorik; kasualitatez topatu nuen, horko banku baten jarrita nengoela, gora begira, eta Munibe eraikineko balkoien simetriaz ohartu nintzen".

Gaur arratsaldean egingo dute azken proba Muniben

Entsegu asko egin dituzte gaurko emanaldia ondo irten dadin. Domekan ordubeteko proba-saioa egin zuten Muniben bertan. Hiru bider egin zuten koreografia, Musiraka taldea eta Andoni Etxebarriaren lana uztartuz. Konforme geratu baziren ere, gaur azken proba-saioa egingo dute, 19:00etan.

Orain eguraldia porta dadin bakarrik falta da; ez bakarrik gaur gauean, ikuskizunak irauten duen bitartean. Margolanak erakusgai egongo dira astelehenera arte, eta horiek eguraldi ona behar dute.



Joan den domekan egindako proba ondo irten zen.



JOXE ARANTZABAL

MUSEOA > INAUGURAZIOA

Sanferminen eta entzierroen gaineko museoaren inauguratu dute Iruñean

Museoaren bultzatzailetako bat Juan Luis Bikuña zezenzale bergararra izan da; atzo inauguratu zuten museoaren ikusleendako

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Entzierroak zer diren ikusteko eta ikasteko aukera egongo da aurrerantzean. Izan ere, sanferminetako entzierroen gaineko museoaren inauguratu berri dute Iruñean. Eta, museoaren atzean, ibarreko hainbat lagun daude.

ZER DEN ENTZIERROA

Juan Luis Bikuña zezenzale bergararra da museoaren bultzatzailetako bat. "Beti nabaritu izan da Iruñean entzierroa zer den jakiteko nahia. Jendea sanferminetara etortzen da jakin barik entzierroa zer den", dio. Hala, aspaldian izan dutela museoaren egiteko nahia azaldu digu.

Bikuñaz gain, Bergararekin beste lotura bat ere badu museoak. Germiniano Moncayo unai oso garrantzitsua izan zen 30eko



Garai bateko entzierroko irudia.

FERIADELTORO.NET

hamarkadan. Izatez Arguedaskoa zen Moncayo. Bada, haren seme bat Bergarara etorri zen bizi izatera eta familiak hainbat argazki eta informazio eman ditu museorako.

MUSEOAREN EGITURA

Museoak bi atal dauzka: lehenengo zatian entzierroa eta batez ere entzierroko hiru pertsonaia nagusi nabarmentzen dira: unaiak, dobladoreak eta korrikariak.

Bigarren zatia birtuala dela esan daiteke. Pantailak daude kontsultak egiteko, ikus-entzunezkoak ikus daitezke, zinema areto bat bezalakoa dago... "Zinta batzuk daude korrika egiteko; 3D betaurrekoak jantzita ematen du zezena atzetik duzula", azaldu du Bikuñak.

Museoa dagoeneko zabalik dago nahi duenak ikus dezan. Mercaderes kalean dago. Sanferminei ongiatorria emateko modu ona!

Juan Luis Bikuña > Zezenzalea

"Garai hartan trenik ez zegoenez, zezenak oinez eramaten zituzten"

A.E. > BERGARA

GOITBn izan zen Juan Luis Bikuña museoaren berri ematen. Arritxu Barruso aurkezleak egindako galderei erantzun zien.



GOIENKARIA

Entzierroen oinarria, esentzia-
ra itzultzea da
asmoa?

Beti izan dugu helburu bera: oinarria joatea; eta euskal toreoaren esentzietako bat da entzierroa. XVI. mendean bazeuden entzierroak Iruñean.

Entzierroa nondik dator?

Garai hartan ez zegoen trenik eta zelanbait eramane behar ziren zezenak. Gaur egun futbola den moduan jendearen droga, lehen zezenak ziren. Hortaz, alde batetik bestera eramateko oinez eramane behar izaten zituzten. Artzainak

edo unaiak ziren zezenak eramane zituztenak. Adibidez, Tuteratik Debara... Etapetan egiten zituzten ibilbide horiek.

Noiz hartu zuten gaur egungo ospea? XIV. mendean Sobrarbeko foruak eman zituen

erregeak. Esaten zuen zezenek kalteak eragiten bazituzten kalte horiek nagusiak ordaindu beharko zituela; baina zezenekin batera jendea baldin bazihoan, kalte horiek Udalak ordainduko zituen.

Ez da Nafarroara mugatzen, ezta?

Toreoa Euskal Herrian sortu zen. Lehenengo datu idatziak 1132. urtekoak dira -Barea, Logroño-. Garai hartan guztia Reino de Navarra zen. Beste datu bat da 1160. urtekoa, Soraluzekoa.



Aukeran dantza taldeko kideak.

GOIENKARIA

DANTZA > AUKERAN TALDEA

Muruamendiaratzek 'Gernika' lana eskainiko du Bergaran, herritarren aurrean

Eusko Jaurlaritzaren VI. dantza garaikidearen zirkuituaren barruan antolatutako saioa da

A.E. > BERGARA

Edu Muruamendiaratz bergararra zuzenduta, *Gernika* lana eskainiko du Aukeran taldeak bihar Bergarako pilotalekuan.

22:30ean izango da ikuskizuna. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatuta, dantza garaikidea erakustea da asmoa. Aurtengoa VI. edizioa da.

11 DANTZARI TAULA GAINEAN

Edu Muruamendiaratz izango da zuzendaria; eta taularen gainean 11 dantzari ibiliko dira dantzan. Dantzariak gain, Alaitz Ormazabalaren ahotsaz gozatzeko aukera egongo da. Musika Xabier Ametzagarena da.

'GERNIKA' LANA

Hausnarketa eragitea da *Gernika* lanaren asmoa. Horretarako, giza errealitate ezberdinak erakusten dituzte dantzariak. Bizipenak lehenengo pertsonaren konstatzen dituzte, eta hainbat pertsonaren bizipen eta testigantzen arteko loturak osatzen dituzte.

Horretarako, ahotsa eta mugimendua erabiltzen ditu dantza konpainiak.

AUKERAN TALDEA

Aukeran Donostiako konpainia bat da eta 1997. urteaz geroztik jatorri tradizionala duten dantza ikuskizunak egiten dituzte. Dantza horien arauetako asko desgaituratu egiten dute; eta koreografiari dantza garaikideko kutsua gehitzen diete. Hori da Aukeran dantza taldearen ikurretako bat.

Helburuetako bat da euskal dantza tradizionalaren aberastasuna ahal den neurrian erakustea, hizkuntza freskoagoa eta egungoagoa lortzeko asmoz. Dantza gustuko dutenendako ikuskitu paregabea.

ZINEMA > GRABAZIOA

Artzain baten gaineko filma egiten dihardu 'Kixi'-k

Film laburra izango da, elkarriketarik gabekoa; udazkenean ikusgai egongo da

Behin grabazioa eginda, muntaia eta postprodukzio lanak egingo ditu ondoren *Kixi*-k. Udazkenean bukatuta egongo da film laburra.

A.E. > BERGARA

Artzain baten istorioa eta bizipenak batu gura ditu Asier Altuna *Kixi*-k bere azken lanean. Film laburra izango da, eta joan den aste bukaeran grabatu zuen Bilbon.

"Eguraldia lagun izan genuen eta giro onean egin genuen grabazioa; batez ere, lagunak eta familiartekoak etorri ziren estra lanak egitera", dio zinema zuzendari bergararrak.

ISTORIO SURREALISTA

Paco Sagarazu da *Kixi*-ren laneko protagonista nagusia. "Pelikula motza izango da, elkarriketarik gabekoa", azaldu du zuzendariak. Artzain baten istorioa kontatzen du, baina ez dauka zerikusirik artzaintzarekin: istorio surrealista dela azaldu du *Kixi*-k.

Asier Altuna, *Kixi*.

GOIENKARIA

OMENALDIA > ARZUAGA ANAIAK

Oñatiko Arzuaga anaien omenezko egitasmoa osatu du lagun talde batek

Migel Angel Arzuaga eta Jose Mari Arzuaga gogora ekartzeko 'Bi anaia artista, gazte zenduak' proiektua sortu dute

NAROA ODRIOZOLA > OÑATI

Migel Angel Arzuaga eta Jose Mari Arzuagaren omenez egitasmo bat osatu du Oñatiko lagun talde batek. Carlos de los Santos, Jerardo Elortza, Jotxo Larrañaga, Patxi Hipolito, Pili Arzuaga, Juan Mari Ibarondo eta Xabier Ugarte elkartu dira Arzuaga anaien inguruko proiektua aurrera eramateko. Haien arteko elkarlanari esker, *Bi anaia artista, gazte zenduak* egitasmoa sortu da.

Egitasmo horren barnean hainbat ekintza antolatut dituzte irail eta urrirako. Lehendabizikoa irailaren 17an, egubakoitza, izango da. Egun horretan Migel Angel Arzuagaren margoen erakusketa egongo da kultura etxean. Aurkezpen ekitaldian azalpen biografikoa egingo da eta era-

kusketan margolariaren lanen liburu bat jarriko da salgai.

Bigarren ekintza urriaren 16an, zapatua, izango da. Agustindarren elizan 19:30ean meza egongo da bi anaien izenean. Elizkizun horretan, Aita Madinak Jose Mari Arzuaga hil ondoren haren omenez idatzitako *Ildakoen meza* kantatuko du Oñati Abesbatzak. Meza bukatu ondoren, Jose Mari Arzuagaren aldeko musika emanaldia egongo da Iruñeko Coro de Voces Graves taldearen eskutik.

ARZUAGA ANAIAK

Jende askok ezagun zituen Arzuaga anaiak. Migel Angel Arzuaga margolaria, ilustratzailea eta argazkilaria zen arren, batez ere lehenengo biengatik zen ezagun. Margolari ona zela gauza jakina



XABIER UGARTE


Jose Mari Arzuaga

Oñati, 1932. Koru-zuzendaria, konpositorea.

- > Irrintzi otxotearen zuzendaria. Sari ugari irabazi zituen. Lau disko grabatu zituen.
- > Aita Madinarekin harreman estua zuen eta hark otxotearentzat musika ugari konposatu zuen. Jose Mari hil zenean, Aita Madinak *Ildakoen meza* konposatu zuen haren omenez.
- > 1967an hil zen, istripuz.

zen, baina, haren koadro gehienak etxe partikularretan zeudenez, ez ziren ezagunak. Hala ere, hainbat sari irabazi zituen. Horretaz gain, hainbat liburu eta aldizkariaren ilustratzaile ere izan zen.

Aurten, hil zela 50 urte betetzen direnez, erakusketa eta margolariaren lanen liburua argitaratzea pentsatu dute antolatzaileek. Baina haren anaia ere, Jose Mari Arzuaga, artista zen musi-



XABIER UGARTE

Migel Angel Arzuaga

Oñati, 1925. Margolaria, ilustratzailea, argazkilaria

- > Margolari gisa hainbat sari irabazi zituen. Argentinan *El paisajista de Oñate* deitzen zioten.
- > *Oñate* eta *Arantzazu* aldizkarietako ilustratzailea izan zen. Hainbat liburu ere ilustratu zituen.
- > Alberto Schommerren lagun mina zen eta haren aitarekin ikasi zuen argazkilaritza.
- > 1960ko urriaren 4an hil zen, istripuz.

ka munduan, eta, gazte hil zenez, bien artista sena uztartuz proiektu hori bideratu dute; hortik egitasmoa. Oñatiko Udalak 3.000 euroko dirulaguntza eman die antolatzaileei.



Maulanda merenderoa

Ondo pasau jaixak!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Debagoiena, jaietan!

SANJUANAK ARRASATEN

Egubakoitza, 25 HAUR ETA GAZTETXOEN FESTA EGUNA

08:30 DIANA gaitariekin, **09:00** ENTZIERROA. Gero, zaleendako bigantxak, zezen-plazan.

09:30 DIANA. Ume eta gatzetxoak iratzartzeko.

10:30 EGUZKI LARURI ONGIETORRIA Biteri plazan. Zaldibarren jolasparkea, gero.

12:30 DANTZA ERAKUSTALDIA. Slimming eskolarekin, Herriko Plazan. Gero, Balkan Folk taldearekin kalejira.

13:30 APAR JOLASA Biteri plazan.

16:30-18:30 Eguzki Laruren JOLASPARKEA Zaldibarren.

17:00 ESKALADA TXAPELKETA Gaztetxeko kanpoko horman.

18:30 ERREKORTADOREEN ESKOLA Gaztetxoendako. Zezen-plazan.

18:30 HAURREN KALEJIRA Txaranga txikiarekin. Zaldibartik Monterronera.

19:00 PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOSen ikuskizuna Irrien lagunak ikuskizuna, Monterron parkean. Gero, Eguzki Laruri agurra.

19:30 CAPOEIRA ERAKUSTALDIA Monterron plazan.

20:00 'OLIMPIKAS 2012' ikuskizuna Horzmuga taldearekin, Seber Altuben.

20:00 KALEJIRA Txosna batzordearekin.

21:00 PARRILLADA Txosnagunean. **22:30** BERTSO TRAMA Arrasateko erreketak gaiarekin. Monterron parkean. Unai Iturriaga, Jokin Labaien, Maialen Lujanbio eta Igor Elortzarekin.

22:30 DANTZALDIA Herriko Plazan. **23:30** SU ARTIFIZIALAK Astondoa pirotekniarekin. Santa Barbaratik,ean.

23:30 KONTZERTUA Txosnagunean. Never Surrender eta Kantuki (erromeria) taldeak.

Zapatua, 26

08:30 DIANA gaitariekin. **09:00** ENTZIERROA. Gero, bigantxak zezen-plazan.

11:00 Erraldoi eta kilikien KALEJIRA.

11:00-23:00 Patxin Matxin SKATE JAIA Zaldibarren.

12:00 TRIKITI-KALEJIRA. **12:00** 'SEGWAY'-ak, erabilgarri Biteri plazan, etan.

12:00-14:30 OILASKO-DASTATZEA, Eusko Labelen eskutik. Herriko Plazan.

12:00 Incansables TXARANGA. **17:00** XAKE norgehiagoka Biteri plazan.

18:30 ERREKORTADOREEN ESKOLA Zezen-plazan.

19:00 KONTZERTUA. Dirty Acustic Brothers, Gorroto eta Golpe de Estado. Txosnagunean.

19:00 Arrasateko gaitariak eta Arrasate Musikaleko taldea KALEJIRA.

19:30 SOKA-DANTZA Herriko Plazan.

20:00 LARRAIN-DANTZA Herriko Plazan.

22:00 DANTZALDIA Haitzama taldearekin, Herriko Plazan.

23:00 KONTZERTUA txosnagunean Cool Circus, Los Cretinos eta Governors.

Domeka, 27

11:00 ERRALDOIEN KALEJIRA Zaldibartik.

13:00 ERRALDOIEN KONTZENTRAZIOA Herriko Plazan. Arrasate, Ondalan, Txantrea eta Sanduzelai konpartsak.

17:00 PILOTA partidu profesionalak Uarkapen: Cabrerizo-L. Galartza / Ongay-Cecilio; eta Martinez de Irujo-Merino / Titin III.a-Laskurain.



Txaranga. JOSETXO ARANTZABAL

FERIXA NAGUSIXA ELGETAN

Egubakoitza, 2 MOZORRO GAUA

17:00 Umeendako OLINPIAR JOKOAK.

19:30 MOZORRO JAITSIERA Salbadortik, Ustekabe txarangarekin.

Plazan, ALKATE TXIKIARI agintea ematea eta TOPA. Segidan, BURUHANDIAK.

22:00 MOZORRO AFARIA plazan.

23:00 Kupela taldearekin ERROMERIA.

00:00 LARRAIN-DANTZA. Ondoren, ERROMERIAK jarraituko du.



Erraldoi eta kilikiek kalejirak egingo dituzte. GOIENKARIA

SANPEDROAK ESKORIATZAN

Astelehena, 28

12:00 ZUBIATE labearen inaugurazioa.

12:00 Umeendako (4-12 urte) MARGO LEHIAKETA Herriko Plazan.

13:00 Margo lehiaketako SARI BANAKETA Herriko Plazan.

17:00 JINKANA gaztelekuan.

18:00 Jaiak hasteko FESTA KANPAIAK ETA TXUPINAZOA, Herriko Plazan.

Ondoren: MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN kalejira.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA. Entzierro txikia estankotik Santa Marina plazara eta han zezen txikiekin erreorteak egiten ikasteko aukera. Poneyak ere egongo dira. Entzierroa kartoizko zezenekin egingo da.

19:00 KONTZERTUA gaztelekuan.

19:30 Parrokiako abesbatzak Eduardo Gorosarriren SALBEA abestuko du San Pedro elizan.

20:00 Trikiizio taldearekin DANTZALDIA Herriko Plazan.

21:00 AFARIA gaztelekuan.

22:30 Helduen DANBORRADA. Segidan: berriro ere dantzaldia Trikiizio taldearekin.

Martitzena, 29 SAN PEDRO EGUNA

09:00 Eskoriatzako TXISTULARI taldearekin kalejira.

11:40 ELIZBIRA.

12:00 San Pedro elizan MEZA NAGUSIA, parrokiako ABESBATZAREN parte-hartzearekin.

12:00 Kulki taldearekin UMEENDAKO JOKOAK Santa Marina plazan.

13:15 Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA Herriko Plazan.

18:00 KENPO erakustaldia Gorosarri plazan.

18:45 Trapu Zaharra antzerki taldeak *Lehiaketa* KALE ANTZERKIA egingo du Erdiko kalean.

20:00 JOSELU ANAIAK taldearekin dantzaldia Herriko Plazan.

22:30 TXAN MAGOAK helduendako magia ikuskizuna egingo du Gorosarri plazan.

23:30 Txosnetan, GOVERNORS, COOL CIRCUS eta ANGER taldeen kontzertua.

00:00 JOSELU ANAIAK taldearekin dantzaldia Herriko Plazan.

Eguaztena, 30 JAIETAKO 2. EGUNA

09:00 Eskoriatzako TXISTULARI taldearekin kalejira.

12:00 POXPOLO ETA KONPAINIA pailazoak Gorosarri plazan.

12:00 Herriko hildakoen aldeko MEZA.

13:00 RANTXERAK: Tolin el Mariatxi Herriko Plazan.

16:30 XIX. MUS TXAPELKETA Gernika plazan (30 euro).

18:30 HAURREN DANBORRADA.

20:00 Alaiki taldearekin DANTZALDIA Herriko Plazan.

22:30 PANTXOA ETA PEIO taldearen kontzertua Gorosarri plazan.

00:00 Alaiki taldearekin DANTZALDIA Herriko Plazan.

Eguena, 1 EUSKAL JAIA

10:30 TXISTULARIEN kalejira.

12:30 TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELAK Herriko Plazan.

12:30 Musika Eskolako dantza taldearekin EUSKAL DANTZAK Herriko Plazan.

13:30 TRIKITILARI ETA



Umeak, danborradan irteteko gertu, iazko argazki baten. J.A.

BURUHANDIEN kalejira.

14:30 HERRI BAZKARIA Gorosarri plazan. Eusko Labeleko jakiak: tomatea, hegaluzea, piperrak... Lekua erreserbatzeko: 943 71 46 88 edo kultura@eskoriatza.net.

15 euro. Txartelak salgai Inkernun eta Goxotxikin.

Bazkalostean, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak.

17:30-21:30 Santa Marina plazan umeendako JOLASPARKEA eta LUDOTEKA.

16:30 APAR FESTA Gorosarri plazan.

18:00 IV. Sanpedruetako KANTU

TXAPELKETA Herriko Plazan. Parte hartu ahal izango da koadrilaka (16 urtetik gorakoak egonez gero taldean) edo banaka. Saria : 300 euro.

19:30 EUSKAL PRESO eta errefuxiatuen aldeko ekitaldia.

19:30 AMAIUR taldea Herriko Plazan.

23:30 GOSE taldea Herriko Plazan.

00:00-03:00 Borondatezko ALKOHOLEMIA kontrola Santa Marina arratean.

00:00 JAI BUKAERAKO bandera jaitsiera eta traka.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. 110 m²ko duplex polita erdialdean, guztiz jantzita. Bi logela (hiru egiteko aukera), bi komun, egongela eta sukaldea. Guztiz berrituta. 65 m²ko ganbara. Berehala bizi izatera joateko aukera. Oso prezio interesgarria. 673 32 78 91.

Elgeta. 85 metro koadroko duplexa salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela beheko suarekin eta berogailua. Guztiz jantzia. 180.000 euro negoziagarri. Aukera aproposa gazte edo bikotearentzako. Zatoz ikustera. 685 75 18 91.

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela, egongela eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 €. 659 72 06 64.

Oñati. Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren solairua. Prezioa: 228.100 euro. Gara-jea aukeran. 945 22 26 62 edo 615 70 86 04.

Oñati. San Lorentzon etxebizitza salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta bi terraza. 634 43 78 19.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Biteri plazan. Sukaldea, egongela, komuna, hiru logela eta ganbara. 605 43 29 31.

Cadizen. Puerto Santa Marian, Valdelagrana, Valdemar urbanizazioa. Hondartzako lehenengo ilaran etxebizitza ematen da errentan. Uztail osoan eta abuztuko lehenengo hamabostaldian. Bi logela, aparkalekua, igerilekua, tenisko pista, aire girotua. 677 50 39 18.

Marina D’Or. Oropesa del Mar (Castello). Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea, bi komun eta terraza. Aparkatzeko plaza eta igerilekua. Hondartzako lehen lerroan. 685 75 62 51 edo 652 73 94 88.

Oñati. Lope Agirre kalean 110 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi komun. 659 53 87 62.

Oñati. Errekalde kalean 3. solairua errentan ematen da. Etxea hiru logela, kmuna, egongela, bi terraza eguzkitsua eta sukalde handi batez dago osaturik dago. Guztiz jantzita. Igogailuarekin. 652 76 63 46.

Peñiskola (Castello). Apartamentuak errentan. Hamabostaldiak. Bi logelakoak. Guztiz jantzia eta hornituak. Hondartzatik 50 metrora. 616 95 04 00 edo 948 41 00 79.

Ribadesella (Asturias). Udako etxebizitza ematen da errentan. Bost pertsonarendako ego- gia. 80 euro egunean. Deitu 695 78 22 47 zenbakira.

Torrevieja (Alacant). Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonarendako lekua. Bi logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. Deitu 609 07 41 27 edo 649 88 79 17 telefono zenbakietara.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 450-500 euro ordain ditzaket hilean. Deitu 699 66 33 63 zenbakira.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 699 09 46 26.

Eskoriatzan ikasten ari garen hiru neska gara eta hurrengo ikasturterako (2010eko iraila-2011ko ekaina) etxea alokatu nahiko genuke. Hiru logela izan beharko litzuzke eta ez litzaziguke inportako etxeak lau logela izatea eta beste norbaitekin konpartitzea. Deitu 635 75 97 10 telefonora.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Arrasatearra etxera-ko kide bila. Erdialdean eta ego- era onean. 300 euro, gastuak barne. 606 74 42 37.

Arrasate. Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da uztail erditik aurrera. Bertan langileak bizi dira. 653 71 44 57.

Arrasate. Logela ematen da errentan. 619 78 63 41.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Udalpe kalean, Unibertsitatetik gertu. Berogailuarekin. Oso eguzkitsua. 200 euro. 646 01 36 27.

Debagoiena. Irailaren hasiera- tik Gabonak arte Mondragon Unibertsitatera (Huhezi) eto- rriko diren Erasmus ikasleen- tzako logelak behar dira. Txema. 656 77 66 32.

Oñati. Oñatiko neska gaztea naiz eta neska baten bila nabil etxea osatzeko uztailaren 1etik aurrera. 677 37 04 81.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. 27 metro koadroko garajea salgai Obenerrekan. Ate automatikoarekin. Bi auto sartzeko aukera. Prezioa aztergai. Interesatuok deitu zenba- ki honetara eta Anagatik gal- detu. 662 34 77 77.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai kalean gara- je itxia ematen da errentan. Autoa sartzeko oso erraza. 943 76 23 53 edo 679 74 00 61.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

OÑATI

Neska euskalduna behar da kafetegian lan egiteko.

635 70 91 78

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Emaku- mezko batek etxeko lanak egin- go litzuzke. 615 72 15 17.

Arrasate. 20 urteko mutila ger- tu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzariaritzeko. 619 78 63 41.

Arrasate. Emakume euskaldu- na gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plan- txia eta abar. 699 54 17 27.

Arrasate. Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko, edo garbiketa zein zerbitzari. 679 04 42 68.

Arrasate. Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo elkar- teak garbitzeko. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dor- leta. Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 zenbakietara.

Arrasate. Neska lanerako ger- tu. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin edota taberna zein jatetxeak garbitzeko. Deitu 610 12 06 73 zenbakira.

Bergara. Neska euskalduna etxetara umeak zaintzeko prest. 615 76 29 25.

Debagoiena. 34 urteko neska brasildarra naiz eta Mari dau- kat izana. Etxeak garbitzeko prest nago. Ez daukat arazorik ordutegiarekin eta lehenago ere etxeak garbitzen aritu izan naiz. Nagusiak zaintzeko ere prest nago. 688 80 21 29 edo 943 79 51 28.

Debagoiena. Emakume ardura- tsu, zintzo eta langilea gertu gar- biketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 646 16 53 87.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

102. EROSI

103. ERRENTAN EMAN

104. ERRENTAN HARTU

105. ETXEA OSATU

106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU

202. EROSI

203. ERRENTAN EMAN

204. ERRENTAN HARTU

205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU

302. EROSI

303. ERRENTAN EMAN

304. ERRENTAN HARTU

305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK

402. ESKAERAK

403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

502. EMAN

503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU

602. EROSI

603. ALOKATU

604. KONPONDU

604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU

702. EROSI

703. EMAN

704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU

802. EROSI

803. EMAN

804. HARTU

805. TRUKATU

806. GALDU

807. AURKITU

808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK

902. HARREMANAK

903. DEIAK

904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldagetakirik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEAK SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Debagoiena. Emakume ardura- tsu, zintzo eta langilea gertu gar- biketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 660 13 94 95.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. 646 77 85 31.

Debagoiena. Gizona gertu per- tsona nagusiak zaintzeko. Ordu- ka edo etxean egoteko prest. 697 54 28 76.

Debagoiena. Mutila gertu zer- bitzari, garbiketa, iturgin lagun- tzaile edo peoi lanetan jardur- teko. 671 84 71 71.

Debagoiena. Neska gertu elkar- te, atari edota tabernak garbi- tzeko. 699 60 91 90.

Debagoiena. Neska gertu nagu- siak zaindu edo etxeko-lan eta garbiketak egiteko. Deitu 678 80 11 54 telefonora.

Debagoiena. Sukalde laguntzai- le, garbiketa eta abarretan jar- duteko gertu. Bi urteko espe- rientzia sukaldean. Autoa dau- kat. 666 21 88 95.

Debagoiena. Tabernan urte askoan ibilitakoa naiz, zerbitza- ri. Herriko jaietan edo aste bukaeretan lan egingo nuke. Idatzi mezu bat *edortamendi@yahoo.es* e-postara edo dei- tu 617 89 41 03 telefono zen- bakira eta Edortarengatik gal- detu.

Edozein lan. Mutil gaztea edo- zein lan egiteko gertu Arrasa- ten, Aretxabaletan edo Berga- ran. 662 08 22 03

Oñati. Oñatiko neska gaztea gertu umeak zaintzeko edo den- dan laguntzaile moduan edo tabernan lan egiteko, uztaila- ren 1etik aurrera. Deitu 677 37 04 81 telefonora.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

DBHko eskolak jasoko nituzke. 18:00etatik aurrera deitu. Dei- tu 605 26 24 62 zenbakira.

502. EMAN

Aretxabaleta. Bigarren batxil- erainoko eskolak ematen dira, udan eta ikasturtean zehar. 653 01 76 67.

Arrasate edo Bergara. Ekaine- an eta uztaillean umeak zaintze- ko edo ume txikiiei eskola par- tikularrak emateko prest dago- en neska euskalduna naiz. Deitu 618 43 60 35 edo 943 76 32 27 telefono zenbakietara.

Arrasate. 6 eta 12 urte arteko umei eskola partikularrak ema- teko prest. Eskoletan experien- tia daukat. Deitu 635 75 05 26 telefonora.

Arrasate. Arrasateko eskolatan esperientzia duen irakaslea udan eskola partikularrak ema- teko prest. Edozein ikasgai. Dei- tu 635 75 05 26 telefonora.

Arrasate. Ingeleseko eskola par- tikularrak emango nituzke uztai- lean zehar, maila guztietan. Arantxa. Deitu 688 64 12 56 telefono zenbakira.

Bergara. Ekainean, uztaillean eta baita urtean zehar ere Lehen Hezkuntzako eskola partikula- rrak ematen dira. Deitu 676 22 82 56 telefono zenbakira.

Bergara. DBHko eskola partiku- larrak emango nituzke uztaila- en eta datorren ikasturtean. 18:00etatik aurrera deitu. Deitu 605 26 24 62 zenbakira.

Bergara. Ekainean eta uztaila- en eskolak partikularrak eman- go nituzke, Lehen Hezkuntza- tik batxilergora arte. Deitu 671 41 22 17 zenbakira.

Bergara. Marrazketa eta pintu- ra eskolak ematen dira uztaila- ko 1. hamabostaldian, 10:00- 12:00. Arrizuri 5, 1.a C. Deitu 651 74 21 54 zenbakira.

Debagoiena. 21 urteko neska euskaldun eta Ingeniaritzako ikaslea uztaillean eskola partiku- larrak emateko prest. Deitu 686 28 76 80 zenbakira.

Debagoiena. Ingeniaritzako ikaslea gertu eskola partikula- rrak emateko, Lehen eta Biga- rren Hezkuntzako haurrei. Dei- tu 943 76 50 97 edo 678 47 43 54 telefonora.

Oñati. Esperientzia handia duen irakasleak eskola partikularrak ematen ditu, urte osoan eta udan. LH eta DBH. Deitu 943 78 28 43 telefonora.

Oñati. Esperientziadun irakas- lea naiz eta eskola partikularrak ematen ditut. 666 21 73 48.

Oñati. Esperientziadun irakas- leak LH, DBH eta batxilergoko eskola partikularrak ematen ditu udan eta kurtsoan zehar. Deitu 649 27 63 50 telefono zenbakira.

Umeak zaintzeko edo ume txi- kiei eskola partikularrak ema- teko prest nago ekainean eta uztaillean. Deitu 618 43 60 35 edo 943 76 32 27 zenbakira.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Peugeot Boxer 2.5 TD furgone- ta salgai. Sukaldea, hozkailua, komuna eta lau pertsonaren- dako ohea. Sei bidaiarirenda- ko homologatua. Bizikletak eta eskiak eramatekoa, atzeko bola, goiko parrilla eta alarma. Dei- tu 653 73 08 04 telefono zen- bakira.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Artzain-bxakur alemanak salgai (txekiar lineakoa). Hiru hilabe- tekoak. Emeak. Oso egokiak zaintzarako. 626 68 68 33.

Pitbulla salgai. Atigratua. Bi hilabete ditu. 685 79 74 63.

703. EMAN

Euskal artzain-bxakurrak ema- ten dira opari. Zuriak. Hiru hila- betekoak. 618 62 78 93 edo 661 72 12 96.

8/ DENETARIK

801. SALDU

BMX bizikleta salgai, ez delako erabiltzen. Oso egoera onean dago eta ez du erabiltzen han- dirik izan. Manillar, kubiarta

eta freno berriekin 130 euro. Deitu 600 71 81 15 telefono zenbakira.

Bateria elektronikoa salgai. Roland TD 12 bateria elektroni- koa salgai, oso egoera onean. EDIROLA eta MIDI kableak opa- ri PCra konektatu ahal izateko. 635 75 20 08.

Bateriasalgai. Oso egoera one- an dago eta ia ez du erabilpe- nik izan, pare bat hilabete gutxi gorabehera; eta prezio ezin hobea, merke-merke. Stagg markakoa da eta prezioa nego- ziagarria da. Deitu 600 71 81 15 telefono zenbakira.

Egongelako altzariak. Izkina egiten duen bost plazako sofa, mahaia, apalak eta bitrina sal- tzen ditut, guztia 300 €. Oso ego- era onean. Deitu 656 78 55 85 telefono zenbakira.

Gurpildun aulki elektrikoa sal- gai. 2009ko azaroan erositakoa; berria, inoiz erabili gabekoa. Prezio onean. Deitu 652 76 00 16 edo 943 25 23 64 telefonra eta Asierrengatik galdetu.

Ikeako Bjursta mahai luzagarria. Zabaldu barik 4 pertsonaren- dako eta zabalik 8 pertsonaren- dako. Beltza da eta muntatuta eskaintzen da. Berri dago. 658 74 26 44.

Ikeako Gilbert aulkiak. Lau aul- ki, beltz kolorekoak. Muntatu- ta daude eta berriak dira. 658 74 26 44.

Karabana. Burstner FUN 490TK salgai. Hiru logelakoa, bainua, sukaldea, berogailua eta abar. Egoera onean. 943 76 50 97 edo 678 47 43 52.

Korrika egiteko zinta. Domydos etxekoa. Oso gutxi erabilia. Berria. 400 euro. 659 79 48 75.

Mahaia salgai. Gerezi kolorekoa. 1,36x90 cm gehi luzagarria. Debagoienean. 617 17 15 88. Asier.

Mendiko motxila salgai. Haurra eramatekoa. Ondo dago. Deu- ter Kid Comfort II Plus marka- koa. 90 euro. 696 63 98 94.

Snow-taula salgai. US-40 mar- kakoa da. Taula, fijazioak eta oinetakoak 100 eurotan sal- tzen ditut. Material guztia ondo dago eta gutxi erabilitakoa da. 671 92 06 49.

Sofa. Bi jarlekuko sofa beltza salgai. Berri-berria eta garan- tiarekin. 85x165 cm. Deitu 653 74 35 80 zenbakira.

802. EROSI

Bizikletak eramatekoa. Nire Volkswagen furgonetaren atze- alderako bizikleta-eramateko bat erosi gura dut. 671 84 15 63

Lursaila erosiko nuke Bergaran, Arrasaten edo Elgeta inguruan. 618 05 65 17.

804. HARTU

Eskaladarako harriak. Arrasa- teko gaztetxean egiten ari garen rokodromorako presak behar ditugu. Hauetakorik izanez gero eta emateko prest egonez gero, bidali mezu bat *arrasatekogaz- tetxea@gmail.com* helbidera.

806. GALDU

Aretxabaleta. Eskumuturrekoa (pultsera) galdu nuen ekaina- ren 18an Pausoka eta Basabe- azpi ikastetxean artean. Aurkitu duenak udaletxera eroan dezala, mesedez.

Belarritakoak Aretxabaletan. Ostiralean, ekainaren 11n, Swa- roski markako belarritako pareia galdu nuen Herriko Plaza ingu- ruan. Harri grisa daukate eta “Dyrberg/Kern” jartzen duen poltsa beltz baten sartuta zeu- den. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez. 943 79 10 96.

Betaurrekoak. Aiba mendi mar- txan, graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu nituen, zorroan sartuta. Aurkitu badi- tuzu, deitu, mesedez. 943 53 42 55 edo 636 38 20 23.

Betaurrekoak galdu ditut, eguz- kitakoak eta graduatuak. Mun- dumirako aste bukaeran galdu nituen, Bergaran edo Antzuo- lan. Aurkituz gero, deitu zenba- kira. 943 76 17 77.

Eraztuna Zubiaurren. Maiatza- ren 24an eraztuna ahaztu nuen Zubiaurreko plaza txikiko ban- ku baten. Aurkitu baldin badu- zu, mesedez, deiezzadazu. Aldez aurretik mila esker. 637 77 45 57

Txamarra Aretxabaletan. Eka- inaren 18an, eguena, arratsal- dean, Aretxabaletako Iturrigo- rri frontoi inguruan 12-14 urte- ko Ternua markako txanodun txamarra gorri berria ahaztu nuen. 697 83 36 66.

Zapata gorria galdu nuen Are- txabaletan. 19 zenbakia, Chu- petin markakoa. 649 96 07 57.

807. AURKITU

Ondarreko jaietan umeen plas- tikozko motor bat agertu zen auzoan. Galdu duenak (guraso- etako batek, jakina) dei dieza- dala. 650 31 03 43.

808. BESTELAKOAK

‘Mobil homea’ ematen da erren- tan uztail eta abuzturako. Aubis- que inguruan, Laruns herrian. Bilogela, sukalde-egongela eta komuna. Bost pertsonarendako egokia. 637 41 97 14.

Bizikleta falta. Maiatzaren 14an, gauean, mutikoaren mendiko bizikleta eroan ziguten Antzuo- latik. BH Jumper bat da, gorria eta grisa. Nonbait ikusi badu- zu edo norbaitek saldu nahi izan badizu... dei iezaguzu, mesedez. 650 31 03 43

Lursaila. Ortua egiteko lursai- la eskaintzen da Arrasate erdi- gunean. Deitu 647578481 tele- fono zenbakira.

DEBA GARAIA

INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- San Lorentzo, 78 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Arte kale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m²



IMANOL SORIANO

Sanjuanak eta sanpedroak GOITBn

Uda heltzearekin batera herri askotan jaiak hasten dira. Horregatik, *Goiena* magazinea-n Arrasateko San Juan jaiei eta Eskoria-tzako San Pedro jaiei tarte zabala eskainiko diegu astelehen eta eguaztenean.

GOITB, 'Magazinea'

> Astelehena, 19:45, 21:15
> Eguaztena, 19:45, 21:15



GOIENKARIA

Egubakoitzeko sanjuanetako bertso trama

San Juan jaien barruan, gaur, egubakoitza, Unai Iturriaga, Jokin Labaien, Maialen Lujanbio eta Igor Elortzarekin bertso trama egongo da. Bada, datorren eguaztenean (hilak 30) ikusgai izango da ekitaldi hori GOITBn.

GOITB, 'Magazinea'

> Eguaztena, 22:15

astea GOITBn						
Egubakoitza, 25	Zapatua, 26	Domeka, 27	Astelehena, 28	Martitzena, 29	Eguaztena, 30	Eguena, 1
13:15 Marrazki bizidunak .	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Animalia.	10:30 Barrebusa.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Errekortadoreak	13:45 Ur eta Lur	13:45 Ikusmira.	13:45 Bertso trama:
14:15 Onein	11:30 Errekortadore txapelketa	11:30 Kliik.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Onein.	14:15 Eltze beroa.	Arrasateko erreketaa..
14:45 Berriak.	12:45 Eltze beroa.	12:00 Jazz jaialdia..	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:15 Eltze beroa.
15:15 Ur eta lur	13:15 Goiena Magazinea	12:30 Erreportajea: Zaborraren kudeaketa.	15:15 Erloklip.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean	14:45 Berriak.
15:45 Jazz jaialdia.	14:15 Barrebusa.	13:00 Ur eta lur.	15:45 Ikusmira.	15:50 Kiroleroak.	15:50 Onein.	15:15 Gipuzkoa kultura.
16:15 Herriz-herri.	15:15 Marrazki bizidunak.	13:30 Onein.	16:15 28 Klip.	16:20 Erloklip.	16:20 28 Klip	15:45 Kliik.
16:45 Berriak.	17:45 Eskuokin.	14:00 Goiena Magazinea.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak	16:15 Ikusmira
17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Ur eta lur	15:00 Gipuzkoa Kultura.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak	16:45 Berriak.
18:00 Ilunpean	18:30 Gipuzkoa Kultura.	15:30 Marrazki bizidunak.	17:45 Kliik.	17:35 Eskuokin	17:35 Harmailatik.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:45 Berriak.	19:00 Kliik.	18:00 Eskuokin.	18:15 Errekortadoreak.	17:55 Kurtulzulo.	18:15 Ur eta lur.	17:45 Eskuokin.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:30 Erreportajea: Zaborraren kudeaketa.	18:15 Barrebusa.	18:45 Ilunpean.	18:15 Gipuzkoakultura.	18:45 Berriak.	18:00 Onein.
19:45 Goiena Magazinea.	20:00 Goiena Magazinea.	19:15 Errekortadoreak.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.
20:45 Gipuzkoa kultura.	21:00 Ilunpean.	20:15 Kiroleroak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Marrazki bizidunak.
21:15 Goiena Magazinea.	21:45 Errekortadoreak	20:45 Goiena Magazinea.	20:45 Harmailatik: Hiru Handiak.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Ilunpean	19:45 Goiena Magazinea.
22:15 Errekortadoreak	22:15 Gipuzkoa kultura	21:45 Gipuzkoa Kultura.	21:30 Goiena Magazinea.	20:45 Harmailatik.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Bertso trama:
23:15 Planik bai?	22:45 Animalia.	22:15 Ilunpean	22:30 Harmailatik	21:30 Goiena Magazinea.	22:15 Bertso trama: Arrasateko erreketaa.	Arrasateko erreketaa..
Berastegi.	23:15 Harmailatik	23:00 Kulturzulo	23:00 Gipuzkoakultura.	22:30 Ilunpean.	23:15 Jazz jaialdia	22:15 Bertso trama: Arrasateko erreketaa.
23:45 .Goiena Magazinea	00:15 28 Klip.	23:15 Jazz jaialdia	23:30 Goiena Magazinea.	23:00 28 Klip	23:45 Goiena Magazinea.	22:45 Kulturzulo.
00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	23:45 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	00:45 Emisio amaiera.	23:00 Erloklip.
				00:30 Emisio amaiera.		23:30 Goiena Magazinea.
						00:45 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kiroлак
Ilunpean (elkarriketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarriketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Musika
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 22:00: Errepikapenak

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 26	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Domeka, 27	Fernandez	Maisu Aranberri, 1	943 79 22 26
Astelehena, 28	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Martitzena, 29	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Eguaztena, 30	Español	Araba Etorbidea, 14	943 79 18 65
Eguena, 1	Ruiz Perez	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09
Egubakoitza, 2	Ettxeberria	Zarrugalde, 42	943 77 16 30

BERGARA

Zapatua, 26	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 27	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 28	Urritikoetxea	Oxirondo Plaza, 4	943 76 11 74
Martitzena, 29	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 30	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 1	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 2	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15

OÑATI

Zapatua, 26	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 27	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 28	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 29	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 30	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 1	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 2	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58

ARETXABALETA

Zapatua, 26 (Goiz.)	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Zapatua, 26 (Arrats.)	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Domeka, 27	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Astelehena, 28	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43
Martitzena, 29	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43
Eguaztena, 30	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43
Eguena, 1	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43
Egubakoitza, 2	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrak galdezka

OZAETAKO AUTOBUS GELTOKIA

Bergarako herritar batek mezu bat bidali digu honakoa galdetzen: "Obrak direla eta, Ozaetako autobus geltokira ez dira autobusak iritsiko. Noiz arte egongo da zerbitzuz kanpo geltokia?"

Ozaeta kalean egiten ari diren urbanizazio-lanen ondo-rioz, Ozaetako geltokira ez dira autobusak iritsiko. Hori dela eta, behin-behineko geltoki bat prestatu da MAYC-eko errotonda ondoan. Behin-behineko geltoki horrek gutxi gorabehera uztaillaren 12ra arte iraungo du.

UDAERO PROGRAMAREN INGURUAN

Aretxabaletako herritar batek telefonoz deitu digu honakoa galdetzeko: "Udaero programari buruz zerbait entzun dut; hala ere, eskertuko nizuke informazio gehiago emango bazenidate".

Udaero programa Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaz-telekuetako uztaileko programa da. 12 eta 16 urte bitar-teko gazteei zuzenduta dago. Programa horren bitartez, gazteek ekintza desberdinak egingo dituzte uztailean zehar; Gamarrara irteera, eskalada, *paint-ball*-a...Izena emate-ko epea ekainaren 30ean bukatzen da.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagokionari.

• Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12

• Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.

• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 26

Zapatuan eguraldiak aldaketak izango ditu. Zerua hodeitsu egon-go da eta arratsaldean euria egin dezake. Tenperatura mantendu egingo da.



Domeka, 27

Domekan eguraldiak ez du alda-keta handirik izango. Zerua hodeitsu egongo da eta euria egingo du. Tenperaturari dago-kionez, mantendu egingo da.

EUSKAL HERRIAN

Asteburuan h o d e i a k izango dira nagusi. Zapa-tuan eta dome-kan zerua hodeitsu egongo da eta euria egingo du. Tenperatura berdin mantenduko da bi egunetan.



hildakoak

- **Felix Garai Santa Cruz.** Arrasaten, ekainaren 17an. 86 urte.
- **Valentin Arriaran Ciaran.** Aramaion, ekainaren 18an. 83 urte.
- **Jose Luis Sandoval Rincon.** Arrasaten, ekainaren 21ean. 60 urte.
- **Basilisa Guridi Iñurritegi.** Oñatin, ekainaren 20an. 81 urte.
- **Ignacio Aristegi Letamendi.** Oñatin, ekainaren 20an. 64 urte.
- **Ramona Zubizarreta Lete.** Bergaran, ekainaren 21ean. 89 urte.
- **Felix Biain Betoitze.** Bergaran, ekainaren 22an. 68 urte.
- **Pio Cid Conde.** Bergaran, ekainaren 22an. 73 urte.



Aramaioko **Leire Ruiz de Azua** eta **Iker Olaziregi** duela bi aste, ekainaren 12an, ezkondu ziren. Hori dela eta, familia eta lagun- nek zorion agurra bidali digute: "Zorionak, bihotz-bihotzez, fami- lia osoaren eta lagun guztien partetik!"



Bergarako **Leire Jimenez** eta Antzuolako **Eneko Lizarralde** Antzuolako udaletxean ezkonduko dira bihar, ekainak 26, 13:00etan. Eztei-bidaian New York, Las Vegas eta Maien Erribe- rara doaz. Zorionak, bikote! Familiakoak eta lagunak.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera.

Eskelaren prezioa: 120 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **160 euro.**

GOIENKARIA: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.



Bergarako **Edurne Agirrebeñak** eta **Josu Lazpiurrek** gaur, ekai- nak 25, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Izan ere, duela 50 urte ezkondu ziren. Hori dela eta, seme-alaben eta biloben partetik, zorionak eta jarraitu horrela urte askoan!



Eskoriatzako **Itziar Urtzelai** eta **Jesus Arroia**be 1960ko ekai- naren 18an ezkondu ziren. Hori dela eta, gaur urrezko ezteiak bete dituzte. "Ondo pasatu zuen urrezko eztei egunean, etxeko- en partetik!"

ESKER ONA

Felix Biain Betoitze

Donostian hil zen 2010eko ekainaren 22an, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko ekainaren 25ean.

ESKER ONA

Basilisa Guridi Iñurritegi

Esteban Astigarragaren alarguna

Oñatin hil zen 2010eko ekainaren 20an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2010eko ekainaren 25ean.

ESKER ONA

Felix Garay Santa Cruz

Francisca Suinagaren alarguna

Arrasaten hil zen 2010eko ekainaren 17an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Angiozarren, 2010eko ekainaren 25ean.

URTEURRENA

Arantza Oteo Askasibar

Hirugarren urteurreneko meza domekan, uztailaren 27an, 12.00etan, Arantzazuko basilikan.

—
*Urontzi bat naiz,
noraezean dabilen urontzia;
mila arroken kontra jo dut
baina korronteak beti zure kostara narama.*

Maite zaitugu, ama.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeaz aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Fernando Santamaria Franco

2000ko ekainaren 26an hil zen, 37 urte zituela.

Hamargarren urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 26an, 18:00etan, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

—
Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.

Maite zaitugu.

Emaztea, seme-alabak eta senide guztiak.
Bergaran, 2010eko ekainaren 25ean.



URTEURRENA

Jose Luis Agirre Goitia

Lehen urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

—
*Behar dugunean ezin gara babestu
zure beso goxoetan,
baina hor zaude ezkutatuta
gure bihotzeko txokorik ederrenean.*

Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeaz aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



OROIGARRIA

Ramona Zubizarreta Lete

Bizente Mujikaren alarguna

Bergaran hil zen 2010eko ekainaren 21ean, 89 urte zituela.

*Ederra izan da zure ondoan
bizitza igarotzea,
une politak eta atseginak
zurekin konpartitza.
Zaila egingo da zuk utzitako
hutsunea betetza
guztiagatik eskerrik asko
eta laster arte, tia.*

Zure koinata eta ilobak.
Bergaran, 2010eko ekainaren 25ean.



OROIGARRIA

Ramona Zubizarreta Lete

Bizente Mujikaren alarguna

Bergaran hil zen 2010eko ekainaren 21ean, 89 urte zituela.

*Urak dakarrena urak daroa
baina zure maitasuna
gurekin geratuko da.*

Zure familia dana.
Bergaran, 2010eko ekainaren 25ean.



Babeslea:


Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Ekainak 25-Uztailak 1

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Ospakizuna



ARETXABALETA

> Dantza eta musikarekin ospatuko dute Jaikiren ikasturte bukaera

Aretxabaleetako Jaiki elkartearen dantza ikastaroan ibili diren ikasle eta irakasleek ekitaldia egingo dute eguazteenan, hilak 30, 19:30ean. Arkupen hasita, musika eta dantza kalejira egingo dute udaletxe zaharrerraino.

Jaia



ARRASATE

> Eusko Labeleko oilaskoak dastatzeko emango dituzte bihar zapatua

Sanjuanen barruan, Eusko Labelek antolatutako oilasko-dastatzea izango da bihar, zapatua. Herriko Plazan ipiniko dituzte postuak, 12:00etatik 14:30era bitartean. Euskal Baserri markako oilasko pintxoak emango dituzte.

Musika



BERGARA

> Anarik kontzertua egingo du etzi, domeka, Txapa Irratiak antolatuta

Anari bakarlariak kontzertua egingo du etzi, domeka, gaztetxean, 20:00etan. Txapa Irratiak antolatu du, eta, halakoe-tan egiten duen moduan, emanaldia zuzenean emango du FMko 97.25ean eta www.txapairratia.org webgunean.

Segidan, Osintxuko eta Bergarako umeendako merienda egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Xipizaro ludotekan, 17:00etan.

OÑATI

> Kultur aniztasunaren festa egingo dute bihar, zapatua

Errekalde herri eskolako gurasoek antolatuta, kultur aniztasunaren festa egingo dute. 18:00etan, umeendako tailerrak irekiko dira; festa animatzeko, 19:00etan, Marmara Marching Band taldeak jazz musika joko du herriko kaleetan barrena; iluntze partean, hainbat herrialdeko jatekoak eskainiko dituzte; eta Nubi taldeak Saharako tea eskainiko dute eta hennarekin gorputza margotzeko aukera emango dute.

Bihar, zapatua, plazan, 18:00-22:00.

OÑATI

> Torreauzoko jaiak gaur, egubakoitza, hasiko dira

Gaur, egubakoitza, etxafuegoak (19:00), txakolin eta gazta-dastatzea (19:00) eta Ez!, Herri Guda eta Red District taldeen kontzertua (22:30); bihar, zapatua, baserriz baserriko kalejira (11:00), auzo-txikiteoa (18:00), 26. Mus txapelketa (16:30), Eriz magoa (17:30) eta txokolate-jana gaztetxoendako (18:30); etzi, domeka, 13. Herri krosa (11:00), meza nagusia (12:30) eta luntxa (13:00).

Hilaren 29an, San Pedro eguneko meza entzungo dute.

Ikuskizunak

ARRASATE

> Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna

Irrien lagunak ikuskizuna egingo dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek.

Gaur, egubakoitza, Monterron parkean, 19:00etan.

BERGARA

> 'Gernika' dantza ikuskizuna egingo du Aukeran taldeak

Edu Muruamendiaratzek zuzentzen duen Aukeran dantza taldeak *Gernika* dantza ikuskizuna egingo du. Gernika-ko bonbardaketaren gaineko ikuskizuna da.

Bihar, zapatua, udal pilotalekuan, 22:30ean.

Musika

ARAMAIO

> Adarrots taldeak euskal folk kontzertua egingo du

Bizkaiko Adarrots taldeak euskal folk emanaldia egingo du. 2009. urtean, Mendebala Folk Jaialdiak antolatutako talde berrien IV. Lehiaketa irabazi zuten.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.

OÑATI

> 'Donibaneke gaua' delako kontzertua, Ganbara Gaztek

Ganbara Gaztek ikasturteko azken kontzertua egingo du: *Donibaneke gaua: musika eta magia bat eginda* delakoa. Udako solstizioa da gaia. Unibertsitateko hainbat lekutik, jendeak kontzertu berezia entzungo du: Erdi Aroko musika, euskal folklore mitologikoa...

Sarrera doan da, baina gonbidapena beharko da

sartzeko; kultura etxean har daiteke.

Gaur, egubakoitza, Unibertsitatean, 22:30ean.

ARRASATE

> Kontzertu maratonia izango da Arrasateko txosnagunean

Arratsaldeko zazpitan, Gorroto (Aramaio), Golpe de Estado (Oñati) eta Dirty Brothers (Arrasate) taldeek joko dute; gaueko hamar eta erdietan, Cool Circus eta Governors-ek (Arrasate) egingo dute emanaldia.

Kontzertuak 19:00etan eta 22:30ean.

Ospakizunak

BERGARA

> San Juan auzoko jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

Honako ekintzak izango dituzte: gaur, egubakoitza, San Juan auzoko poker txapelketa (Tartufoko areto handian, 21:00); bihar, zapatua, trikiti-poteoa elkartetik Tartufora (13:00), auzo bazkaria (14:30), San Juan auzoko briska txapelketa (Tartufon, 17:30), haur jolasak Jardunekin (elizako kanpan, 18:00), eta

PROPOSAMENA



ANTZUOLA

> Jinkana, arbola jasotzea, sagar-dantza, kale ikuskizuna eta gehiago, Kalebarrengo jaietan

Antzuolan ere jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran: Kalebarrengoak, hain zuzen ere. Honako ekintzak antolatu dituzte: bihar, zapatua, jinkana (12:00), arbola jasotzea (20:00) eta sagar-dantza (gauerdian); eta etzi, domeka, txistularien diana herrian barrena (10:00), Oinaringo dantzarien emanaldia (12:30) eta *De bote en bote* delako kale antzerkia Zurrategin (19:00).

Ospakizunak, bihar, zapatua, eta etzi, domeka.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

HITZALDIA



"Biodibertsitatea, jasangarritasuna eta elkartasuna"

- Hizlaria: Miguel Delibes de Castro
- Ekainaren 30ean. Newton auditorioan, 19:30ean
- Sarrera doan. Leku-kopuru mugatua

Elkartasuna, jasangarritasuna eta biodibertsitatearen kontserbazioa hain daude elkarrekin uztartuta, ezen bata bestearen baitakoa baitira. Nola, ordea?

Informazio gehiago: www.miramón.org edota 943 01 24 78



Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Orduetgia
Astelehenetan ixita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

Erakusketak

BERGARA

> **Umeek egindako margolanak Pintzeladak arte tailerrean**

Pintzeladak arte tailerrean ikasi duten umeek egindako margoen erakusketa dago: *Bergara eta bere inguruak*. Ekainaren 28tik uztailaren 3ra bitartean izango da zabalik (17:00-20:00).

Telesforo Arantzadi kaleko 3.ean.

BERGARA

> **Ion Erramun Etxebarriaren argazkiak ikusgai daude**

Ion Erramun Etxebarriaren argazki erakusketa dago Aroztegi aretoan. Zabalik egongo da hilaren 27ra arte.

Ordutegia: gaur, egubakoitza: 18:00-20:30; bihar, zapatua: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; etzi, domeka: 12:00-14:00.

ARETXABALETA

> **Eskulan eta zeramika ikastaroko kideen erakusketa**

Eskulan eta zeramika ikastaroan dabiltzanek euren lanak ikusgai ipini dituzte Arkupen. Hil osoan dago erakusketa zabalik.

Astelehenetik egubakoitzera, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuan, 11:00-13:00.

ARRASATE

> **6. Herensugea lehiaketara aurkeztutako margolanak**

Sanjuanetako 6. Herensugea margo lehiaketara aurkeztu ziren lanak ikusteko aukera dago oraindik. Etzi, domeka, itxiko dute erakusketa.

Harresi aretoan. Gaur, egubakoitza, 18:00-20:00; bihar, zapatua, eta etzi, domeka, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ARAMAIO

> **Alex Mendikutek argazki erakusketa dauka**

Alex Mendikuteren hainbat argazki daude erakusketan Sastiñan. Ekainaren 27ra arte dago zabalik erakusketa.

Astelehenetik zapatura, 19:00-20:00; etzi, domeka, 12:30etik aurrera.

Bestelakoak

ARAMAIO

> **Obena baserriaren aldeko jaialdia egingo dute domekan**

Sute batek suntsitutako Obena baserriko familiari laguntzeko jaialdia egingo dute, Udalak eta Oletako Kontzejuak antolatuta. Honako ekitaldiak antolatut dituzte: herri kirolak, Iparraldeko jokoak; eta segalariak txanda librean (Obena ondoko landan, 12:00etan); eta Xabi eta Unai taldearekin erromeria (Oletako plazan, 18:00etan).

Etzi, domeka, Oletan.

BERGARA

> **Jostailuen truke azoka egingo du Jardun elkarteak**

Aurretik txartelaren truke jostailua eman dutenek beste bat har dezakete. Gaur, bari-kua, 18:00-20:00; bihar, zapatua, 10:00-13:00 eta 18:00-20:00; eta etzi, domeka, 10:00-13:00.

Arrizuriaga jauregian.

Zinema

ELGETA	La vida empieza hoy 18:00, 20:15, 22:30.	Sexo en Nueva York 2 18:45, 21:45, 00:30 (zapatua eta domeka); 21:45, 00:30 (gainerako egunak).	ÁBACO BOULEVARD
ESPALOIA	El retrato de Dorian Gray 18:00, 20:15, 22:30.	Marmaduke 16:20, 18:20, 20:20 (egubakoitzetik domekara), 22:20.	Robin Hood 16:05, 19:00, 22:00, 00:45.
	Entre nosotros 18:00, 20:15, 22:30.		Que se mueran los feos 16:15, 18:20.
GASTEIZ			La venganza de Ira Vamp 20:15, 22:15, 00:30.
GURIDI	The blind side 17:30, 20:00, 22:30.	Garfield y su pandilla (3D emanaldiak) 18:00.	En pata de guerra 16:25, 18:25, 20:20, 22:20, 00:30.
	Robin Hood 22:30.	Un ciudadano ejemplar 19:45, 22:10, 00:15.	Campamento Flipy 16:15, 18:15.
	Marmaduke 17:00, 18:45, 20:30.	Two lovers 15:45 (zapatua eta domeka), 17:45.	El retrato de Dorian Gray 15:55, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.
	Sexo en Nueva York 2 17:30, 20:00, 22:30.	Legión 18:30 (zapatua eta domeka), 20:30, 22:30, 00:30.	Un sueño posible 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.
	En pata de guerra 17:00, 18:45, 20:35, 22:30.	El escritor 22:20, 00:20.	Alicia en el país de las maravillas 16:00, 18:10.
	La vida privada de Pipa Lee 17:00, 18:50, 20:40, 22:30.	Kick ass 22:05, 00:25.	Un ciudadano ejemplar 20:25, 22:35, 00:45.
	El príncipe de Persia 17:00, 19:45.	La última canción 16:30 (zapatua eta domeka), 18:30.	Legión 16:10, 18:20, 20:30, 22:30, 00:45.
	La última cima 17:00, 18:50, 20:40, 22:30.	Cómo entrenar a tu dragón 15:40.	El príncipe de Persia 15:45, 18:00, 20:20, 22:35, 01:00.
	Que se mueran los feos 22:30.	La vida privada de Pipa Lee 16:35 (zapatua eta domeka), 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.	Kick ass 20:20, 22:40.
FLORIDA-GURIDI		Ekainaren 25etik 29ra. Gaurdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.	Sexo en Nueva York 2 16:00, 19:00, 22:00.
	Air doll 20:15, 22:30.		La última canción 16:10, 18:15, 20:30, 22:35.
	Dos hermanos 18:00, 20:15, 22:30.		Marmaduke 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
	Villa Amalia 18:00, 20:15, 22:30.		Ekainaren 25etik 29ra. Gaurdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.
	La venganza de Ira Vamp 18:00.	Alicia en el país de las maravillas (3D emanaldiak) 16:00 (egubakoitza izan ezik).	
	Vincere 18:00, 22:30.	Que se mueran los feos 18:10, 20:20, 22:30.	
	80 egunean 20:15.	Campamento Flipy 16:40 (zapatua eta domeka), 18:45.	



VINCERE ****

Emakume maitemindu baten erretratua

> **Zuzendaria:** Marco Bellocchio.

> **Aktoreak:** Giovanna Mezzogiorno, Filippo Timi, Michela Cescon, Fabrizio Costella.

> Italia, 2009.

> 128 min.

Ida Dalser da *Vincere*-ren protagonista nagusia. Mussolinirekin ezkondu eta seme bat izan arren, historian ezkutatua izan da. Italiako diktadoreak ez zien harreman horiei ofizialtasunik eman eta ahaleginak egin zituen Ida eta bere semearen ahotsak isiltzeko. Marco Bellocchiok istorio sekretua zinema bihurtzen du, irudietan islatzeko emakume horren pasioa eta kementa jartzeko dizkioten oztopo eta indarren kontra borrokatzeko.

Filmaren hasierako eszenetan Mussoliniren lehen pauso politikoak ikusiko ditugu, lehen mitin polemikoak, sortzen diren istiluak, eta eszena horietan neska bat antzematen dugu. Bi pertsonaiek elkar eza-gutuko dute eta hortik aurrera Idak sentitzen duen amodioaren lekuko izango gara. Pasioz beteriko sentimenduak dira, harreman horietan gorputza, arima eta duen guztia ematen

du, gero baztertua eta mespretxatua izateko.

Vincere-ren lehen zatia nahasiagoa da, denbora saltoak daude, narrazioa ez da lineala. Ida eroetxean sartzen dute eta hortik aurrera bikotearen istorioa neskaren istorio bihurtuko da. *Il duce* bakarrik artxi-boko irudietan agertuko da.

Bigarren zatiko eszena gehienak eroetxean badira ere, horiek kontatzeko modua linealagoa eta klasikoagoa da. Idaren bataila hunkigarria eta kamikazea erakutsi zaigu. Ez du eskaintzen dizkioten irtenbide errazak baina eskasak onartzen, eta horrek emaitza onik ekarriko ez dion arren, duintasuna leku gorenean mantenduko du. Zuzendariak errespetuz eta miresmenez kontatzen du emakumearen bizitza. Bere sentimendu guztiak islatu nahi du; horretarako emakumearen lehen plano asko daude, eta horien bitartez Giovanna Mezzogiornok pertsonaiaren erretratu zehatza, barnekoia eta zirraragarria sortzen du.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

bono fotoa



Gure bailarako herri honek euskaltzale asko eman ditu. Horietako bat euskaltzain oso izendatu zuen Euskaltzaindiak duela aste batzuk.

Nola du izena herri honek?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

ZORIONAK AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEARI:

Aretxabaletako **Josu Elexpuru**.
Erantzun zuzena: **Aloña mendi edo Gorgomendi**.

ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Lerchago krintza: botila bat.

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

HERRIA **TELEFONOA**

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Iritsi dira igerilekuko egunak

UDA Astelehenean hasi genuen 93 egun eta hamabost ordu iraungo duen urtaro berria

IGERILEKUAK BETETA Debagoieneko gaztetxo askok hartu dute uda sasoiko lehenengo bainua

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Krisi ekonomikoak bere horretan jarraitzen du, langabe kopuruak ere bai, eta baita gure eguneroko arazo eta tirabirek ere. Dena dela, astelehenaz geroztik lasaiago, baikorrago eta umoretsuago gaude denok; hori dirudi, behintzat. Astelehenean udan sartu ginen; aurren, zehatz-mehatz, 93 egun eta hamabost ordu iraungo duen urte sasoian.

Gustura hartu dugu urtaro berria, baina are gusturago hark ekarri duen eguraldia. Uda hasi genuenetik eguzkiak ez du hutsik egin.

LEHORRA ETA BEROA

Bikain hasi dugu uda, eguraldi sanoarekin, baina gelditzen diren 89 egun hauetan denetik ikusiko dugu, seguruenik. Eguraldi adituek diote aurtengo uda ohi baino lehorragoa eta beroagoa izango dela, eta bero-lainoek egun askotan eguzkiari oztupo egingo diotela.

Etorriko dira etorri beharrekoak, baina oraingoz esan dezakeguna da askok eta askok aste honetan dagoeneko udako lehenengo bainua hartzeko aukera izan dutela; ibarreko igerilekuak jendez beteta ikusi ditugu.



ARRASATEKO IGERILEKUA Gaztetxo koadrila bat pozik uretara salto egiten.

ARRITXU BARRUSO

HIRU HILABETE AURRETIK...

Guztiok hartzen dugu gustura uda sasoia, baina, zalantza barik, gehien disfrutatzen eta aprobeztatzen dutenak etxeko gaztetxo-enak izaten dira. Ikasturtea amai-

tu, liburuak armairuan gorde eta ia hiru hilabete izaten dituzte lagun artean egun osoa igerilekuan pasatzeko. Aste honetan bertan ekin diote bizimodu berriari. "Kartetan jolasten gara

edo bestela musika entzuten egoten gara", dio Arrasateko igerilekuko gaztetxo koadrila batek. Ligatzeko ere ez omen da toki txarra. Zein ederra, polita eta erromantikoa den uda!

ahobero

"Ministroen soldatak jaisten jarraitzen badute, laster analfabetoak bakarrik iritsiko dira kargu horietara"

Miguel Boyer > Ministro ohia

Enpresaburuek ministroen soldatak jaisteko egindako eskakizuna ez du batere begi onez ikusten Ekonomiako ministro ohia. Analfabeto eta ez analfabeto, guztiok ari gara sufrizten bizi dugun egoera ekonomiko larria; Gobernu kideek ere sufritu behar dute, ala?

iturri onetik

Jon Molina eta Xabier Amutxastegi izango dira Bergarako hurrengo abadeak

Bergarako bi parrokoek, Juan Kruz Mendizabalek eta Iñigo Mitxelenak, Bergara utziko dute udako oporren bueltan. Mitxelena Leireko monasteriora joango da eta Mendizabal Donostiara, Gipuzkoako Pastoraltzako bikario moduan. Bada, bi abadeek badituzte dagoeneko ordezkotak; Jon Molina aretxabaletarra, gaur egun Arrasateko parrokoa dena, eta Xabier Amutxastegi debarra.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Pello

Zinegotzi ezagutu genuen Arrasaten gaur Eusko Alkartasunaren idazkari dena, *Ametzu* aitarengandik jasota nonbait politikarako grina. Alderdi trumiltsuan sasoi gogorra egokitu zaio Pellori eta esango nuke txukun baino gehixeago ari dela moldatzen.

Kanpotik ikusita, behintzat, Pelloren EAK dauka une honetan sekulako zentraltasuna: alde batetik Euskaldun sinatu berri duen ituna Batasuna ohiarekin, eta bestetik duela aste batzuk Nafarroan sinatu zuena Aralarrekin. Pentsatzekoa da borroka armatua desagertuta hiru hanka horien bueltan eratuko litzatekeela independentzia-zaleen esparrua, eta beste biren artean zubi lanetarako primeran kokatuta legoke EA. Azken hauteskundeen ondoren erdi hiltzat eman genuen alderdiarentzat, ez da gutxi.

ai, ene!



Ahoa zabalik itxaroten duen komuna da hori

Originala dela argi dago, baina ez du oso atsegina izan behar larritasun une batean komune-ra joan eta halako bat topatzeak.

www.fotosdehumor.com

Sanjuanak eta Sanpedroak

SAN JUAN JAIEN JARRAIPENA MAGAZINEA-N

Astelehenean, ekainaren 28an, 19:45, 21:15 eta 23:15ean.

SAN PEDRO JAIEN JARRAIPENA MAGAZINEA-N

Eguaztenean, ekainaren 30ean, 19:45, 21:15 eta 23:15ean.



Ikustekoa!

